



Algortako Julio Caro Baroja BHI institutuaren 50. urteurrena ospatuko dute astelehenean, hilak 14. ▶02

Alberto Díez historia-ikertzailearen ustez, errioxarrak eta burgostarrak «gure senideak» dira; liburua idatzi du Berangon bizi den gorliztarrak. ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



76. zenbakia

2016ko
azaroaren 10etik
azaroaren 16ra arte

Alejandro Cearreta ikertzaileak eta nazioarteko beste 37 zientzialarik uste dute pertsona geologia moldatzeko gai dela; hori dela-eta, Antropozenoan gaudela diote. Tunelboka hondartza da horren adibide argi bat. ▶22-23



Antropozenoa; garai geologiko berrian bizi gara?



«Frankismoan genozidio itzela izan zen hemen»

Ander Lipus aktore markinarrak *Francoren bilobari gutuna* antzezlanari ekarriko du datorren asteko barikuan, azaroaren 18an, Kultur Leioara.

Frankismoak Euskal Herrian utzi-tako zauriari ez ohiko begiradagaz erreparatuko diote Artedrama eta Le Petit Théâtre de Pain konpainiek

zein Dejabu Papin Laborategiak, zazpi aktorek hezuramamitutako 50 bat pertsonaiaren bitartez. Sopelan ere izango dira, abenduan. ▶16-17

HERRIZ HERRI URIBE KOSTA

Gure Esku Dago, martxan

Uribe Kosta Ados taldeak mendi-martxa antolatu du hilaren 20an. Bestalde, Leioako GEDren taldea sinadurak batzen hasi da.

Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizko Gure Esku Dagoren Ados taldeak mendi-martxa egingo du Plentziaraino, datorren domekan, azaroaren 20an. Hurrengo pausoaren aurkezpena egingo du: herri-galdeketa egiteko ekimenean, galdera adosteko fasea abiatuko du. Leioan, sinadurak batzeko faseari ekin diote. ▶6/10

Erandioko Udalak liburutegi berria eta Herriarren Arretarako Zerbitzuaren bulegoak ipiniko ditu 2017an. ▶5

Urko kiroldegia berritu gura du Sopelako Udalak; lanei ekin aurretik, belar artifizialeko futbol-zelaia aldatuko dute. ▶7

Berangoko Udalak 2017ko aurrekontuak osatzeko prozesu parte-hartzailea martxan ipiniko du. ▶8

HAPOn Aurrerapena prest dauka Gorlizko Udalak; iradokizunak edo alegazioak egin dakizkioke, aurrerantzean. ▶9

Julio Caro Barojak bere mende erdia ospatuko du, astelehenean

Getxoko lehenengo institutua 1966ko azaroaren 13an inauguratu zuten. Urrezko ezteiak ospatzeko, egitarau berezia antolatu dute hilaren 14rako, astelehena.



Argazki zaharrak ikusgai dituzte institutuaren webgunean. © JULIO CARO BAROJA BHI

Domeka honetan 50 urte beteko dira Getxoko lehenengo institutua inauguratu zutenetik. Izan ere, 1966ko azaroaren 13an zabaldu zuen lehenengoz Julio Caro Baroja institutua, Algortan, Gobela ibaiaren parean. Hala, urrezko ezteiak ospatzeko asmoz, azken hilabeteotan ikastetxeak hainbat ekimen egin ditu: urtemugaren berri emateko karte-la hautatzea eta argazki zaharren erakusketa, berbarako. Hurrengo ekitaldia, oster, astelehenean izango da, hilaren 14an. Egun horretan, Norvegiatik etorritako ikasleei eta irakasleei harrera egiteaz gainera, gonbidatu bereziak hurre-ratuko dira institutura, euskarazko zein gaztelaniazko ikasleakaz berba egiteko. Besteak beste, Unai Elorriaga idazle getxoztarra, Sociedad Filatélica de Getxoko ordezkariak, Armando Llamosas ondarean aditu zein blogaria, eta Jesús Fernández Ungile izango dituzte DBHko eta batxilergoko ikasleek eurakaz jarduteko, eskola-orduetan. Horrez gainera, 11:00etan, ekitaldi nagusia egingo dute: altzifre bat landatuko dute ikas-

tetxearen sarreran. Horren ondoren, hainbat ikaslek musika-emanaldia eskainiko dute eta beste batzuek bertsoak abestuko dituzte. Gero, Imanol Landa alkateak berba egingo du bertaratutako denakaz. Zigiluen erakusketa batez ere gozatu ahal izango da, besteak beste. Ikasturtean zehar, bestelako hainbat ekintza egingo dituzte, 50 urte ez dira-eta egunero betetzen. ◀

Egitaraua

Azaroak 14, astelehena

08:15 Norvegiako ikasle eta irakasleei ondoetorria, areto nagusian.

09:10-10:05 Unai Elorriaga: DBHko euskarazko ikasleakaz.

10:05-11:00 Unai Elorriaga: DBHko gaztelarazko ikasleakaz.

11:00 Ekitaldi nagusia, Imanol Landagaz.

11:30-12:25 Sociedad Filatélica de Getxo: DBHko gaztelarazko ikasleakaz.

12:25-13:20 Armando Llamosas: DBHko euskarazko ikasleakaz.

13:40-14:35 Armando Llamosas: batxilergoko euskarazko ikasleakaz.

14:35-15:30 Jesús Fernández Ungil: batxilergoko gaztelarazko ikasleakaz.

Urteko Boluntariotza Sarirako hautagaiak aurkez daitezke

Datorren azaroaren 20ra arte aukera degongo da hautagaiak aurkezteko aurtengo Boluntariotza Sarira. Sarike-ta horren XXIII. edizioa izango da eta Sarekide boluntariotza-erakundearen elkarrekin antolatzen du, Getxoko Udala-ren laguntzagaz. Sari bakarria emango dute, egindako lanaren aitortzat. Banakako modalitatean, sariaren hartzaileak izan daitezke jarduera solidarioa irabazi-asmo bako erakunde so-

zioletan eta udalerrian egiten duten boluntarioak. Bestalde, modalitate kolektiboan, erakunde sozialek lortu ahal izango dute saria, baldin eta modu iraunkor eta eraginkorrean egiten dituzten proiektuetan boluntariotzak garrantzi berezia badauka. Eskabideak Gobelaurre boluntariotza zentrori bidaltzeko beharra dago, posta arruntaren edo elektronikoaren bidez. ◀

info+: info@sarekidegetxo.org

Emozio ilustratuen gaineko tailerra antolatu dute

Datorren azaroaren 19an, zapatuan, *Emozio Ilustratuak* izeneko tailerra egingo dute Itzubaltzeta/Romoko kultur etxean. Ekimena Getxoko Udalak sustatutako Zurrumurrurik Ez Estrategiaren barruan kokatuta dago. Quan Zhou Wu ilustratzaileak eta *Gazpacho Agridulce* komikiaren egileak eta Em Wai Zhou Lin psikologoak eskainiko dute tailerra. Ekintza horren helburua

da emigratzea erabaki zuten gurasoen eta berton jaiotako gazteen bizipen-tara hurreratzea, komikiaren eta umorearen bitartez. Hainbat ilustrazio eta ariketen bidez, estereotipoen, aurreiritziez, nortasun-krisiez eta nortasun askoren ahalmena bezalako gaiez jardungo dira parte-hartzaileak. Tailerra 12:00etan hasiko da; ez da beharrezkoa aldez aurretik izena ematea. ◀

«Indabadaren aurkako jazarpenak» salatu gura dituzte



Bazkaria egin zuten leku berean egingo dute prentsaurrekoa, zapatuan. INDABADA

Indabada jaialdiaren 17. edizioa egin izuten joan den urriaren 24an Algortan. Guztira 400 pertsona inguru batu ziren San Nikolas plazan, eta jai giro ederrean. Hala ere, antolatzaileek salatu dute «gune publikoaren erabilera arduragabea egiteagatik, udal-gobernuak antolatzaileen aurkako neurri polizial kezkarriak ipini dituela mar-txan». Indaba-jana egin zenetik hona, «gazte ugari jarraipenak, identifika-

zioak eta telefono bidezko jazarpenak» jazo dituztela ohartarazi dute, «dena, aisialdi-eskaintza arrakastatsu bat eskaini eta ondoren plaza garbi-garbi uzteagatik». Aitortu dutenez, «arazoa ekimena Udalarik ez jakinaraztea» da, baina «aitzakia» baino ez dela uste dute. Hala, egoera hori salatuz, «gazte asko» batu gura dituzte egingo duten prentsaurrekoan, zapatuan, hilaren 12an, 12:30ean, San Nikolas plazan. ◀

Getxo

Martin Deunaren jaiak izango dira aste-akabuan, Hezetasuna auzoan

Udagoienez ere badira

jaiak gurean: azaroaren 11tik 13ra, Algortako Hezetasuna auzoan izango da hitzordua.

Urteko ohiturari jarraituz, azaroko bigarren aste-akabuan ospatuko dituzte SAN Martin jaiak Algortako Hezetasuna auzokoek, hilaren 11tik 13ra, beren-beregi. Aurton ere, azkenean heldu diren eurite eta hotzetik babestu guran, karpa eta txosna ipiniko dituzte Iturgitxiko parkean, iaz egin zuten legez. Bertan egingo dituzte festen gaueko jarduerak, berbarako kontzertuak eta bakarrikzeta; zapatuko paela-jana ere bai.

Barikuan, hilaren 11n, hasiko dira jaiak, 17:00etan jaurtiko duten txupinagaz. Jarraian, pailazoen ikuskizuna eta kalejira egingo dituzte Txikia plazatik abiatuta. Ordubete beranduago, puzgarriak egongo dira Areneazpi kalean; pilota-partidak San Nikolas ikastolako pilotalekuan; Eskuz Esku abesbatza kantaldia, San Martin de Tours



Aurton ere karpa ipiniko dute Iturgitxiko parkean.

elizan. Gauean, Hexen eta Hijos de tu iglesia taldeen kontzertuak egongo dira. Zapatuan, oster, umeentzako jarduerak, kalejira, tiragoma-txapelketa, dantzaldiak eta bakarrikzeta egongo dira. Horrez gainera, urtero legez, herri-bazkaria egongo da Itur-

gitxiko parkean ipiniko duten karpan; 8 euroan. Gauean, Kuenta Atras eta El Reno Renardo musika-taldeen zuzeneko eskainiko dute, Iturgitxiko karpan bertan. Azkenengo egunean, 38. Lapi-koken Txapelketa egingo dute auzoko kaleetan, besteak beste. ◀

Ekitaldi batzuk

Azaroak 11, barikua

17:00 Txupinaren jaurtiketa eta pailazoen ikuskizuna, Bat Bi Hiru Festagaz; ikastolan.

18:00 Kalejira, buruhandi eta txistulariakaz; Txikia plazatik hasita.

18:00 Puzgarriak, ikastolan.

19:00 eta 20:00 Pilota-partidak, ikastolako pilotalekuan.

20:00 Eskuz Esku abesbatzaren emanaldia, San Martin de Tours elizan.

18:00 Umeen mozorro-lehiaketa, azoka zaharrean eta Mendiguren plazan.

21:00 Herri kalejira Altzagan.

22:30 Hexen eta Hijos de tu iglesia taldeen kontzertua, karpan.

Azaroak 12, zapatua

10:30 Umeentzako marrazki-lehiaketa, ikastolan.

11:00 Puzgarriak, tailerrak, tiragomako eta igel-tokako txapelketak, ikastolan.

13:00 Txarangak girotutako poteoa.

17:00 Bazkari herrikoia, karpan.

18:00 Herri kirolen erakustaldia, Areneazpi kalean.

19:00 XXVII Juanjo G. Mendibili aurrekulari txapelketa (gizonezko mailan), ikastolan.

20:30 Nori-ren bakarrikzeta, karpan.

22:30 Kuenta Atras eta El Reno Renardo taldeen kontzertuak, karpan.

Azaroak 13, domeka

10:30-11:30 XXXVIII. Lapi-koken Txapelketa izen-ematea.

12:30 Euskal dantzen erakustaldia, ikastolan.

19:00 Umeen artean txokolatea banatuko dute, Areneazpi kalean.

Udaberrian zabalduko dute gurutzaontzien estazio berria

Apurka-apurka, gurutzaontzien terminala eraikitzen daude. Aurreikusitako epeak betetzen dabiltzala adierazi du Udalak; horrenbestez, eraikina 2017ko udaberrian zabaltzea espero dute arduradunek. Estazioa bigarren moilan dago; itsasotik Bizkaira datozen turisten zenbatekoa handitzea espero dute, horri esker. Pasa den martxoan hasi zituzten estazioa eraikitze

lanak, 4,6 milioi euroko aurrekontuagaz. Apiriletik eta ekainera bitartean, eraikinaren egitura egin zuten. Udan, metalezko egitura muntatzeari ekin zioten, urriaren amaiera arte. Orain, instalazio elektrikoak, klimatizazioa, zoruak eta pintura egokitzeko lanetan dihardute. Apirilaren 5etik gaur arte, 51 ontzi porturatu dira Getxon, guztira; iaz baino % 19 gehiago. ◀



Ez da giro

GERMAN KORTABARRIA IGARTUA

Ahantzura garaile

Eustakio Mendizabal Txikiaren arrastoa mapatik kendu behar horrek Juan Mari Bandresek Vázquez Montalbani kontatutakoa ekarri dit gogora: Felipe Gonzálezek, artean Isidoro zenean, begi onez zekusala ETaren jarduerak; hitzez hitz, «por entonces (70 hamarraldiko hasieran) era un entusiasta de la lucha antifranquista de ETA»; alegia, Isidorori –beste askori lez– Francoren borroak gaitzesgarriago zitzaizkiola haiek 1973ko apirilean hil zuten Txikia baino.

Txikia plazaren auziaren ebazpenean biktimen borroaren gaineko garaipena ikusi du Getxoko PPK. Niretzat biktimen memoria baino garaileago atera da borroekiko ahantzura. ◀

Getxo

Kulturen arteko balioak sustatzeko

Migrazioen inguruko irakurketa-gida kaleratu du Getxoko Udalak; Villamonteko liburutegian har daiteke.

Getxoko Udaleko Liburutegien Zerbitzuak eta Immigrazio eta Kultur artekotasun Unitateak *Horren urrun, horren hurbil: migrazioak eta babesa* izeneko gida argitaratu dute, *Liburutegiak Topaleku* programak sustatutako kultur arteko estrategiaren barruan. Horrek kultur arteko bizikidetzak-balioak sustatzen ditu, urte osoan egiten diren jardueren bitartez. Programa horren helburuen artean daude kultura eta jatorri guztietako pertsonen topagune eta bizikidetzak-gune bezala sustatzea liburutegiak, baita migratutako komunitateen ondare kulturala nabarmentzea ere. Irakurtze-gidak nabarmendu gura du kultur aniztasunaren balioa, gizon-emakume guztien ondare nagusitzat, errealitate urbano eta soziala eraldatzeko funtsezko osagaia delako. Ildo horretan, Getxoko Etorkinak Plataforma Federazioaren laguntzagaz baliabi-deak ipini ohi dituzte herritarren esku-



Horren urrun, horren hurbil: migrazioak eta babesa izeneko gida eskuragarri dago Algortako Villamonteko liburutegian.

ra, barbarako aipatutako gida, hainbat ikuspuntutik sustatzeko munduan dauden pertsonen mugimenduen gaia- ren ezagutza. Gida 2009an argitaratu zuten lehenengo aldiz, Eusko Jaurlaritzaren Liburutegien Zerbitzuaren laguntzagaz; Villamonteko liburutegian eskuragarri dago. Arduradunek azaldu dutenez, aurtengo Ondarearen Europako Jardunaldiakaz bat dator gida hori.

Hain zuzen ere, Portugalgo Faroko Hitzarmenaren akordioak martxan ipintzearen arduradun Hakan Demir etorri zen Getxora, joan den astean. Bisitaldian, Liburutegietako eta Immigrazio-ko teknikariakaz batu zen, eta horiek Getxon antolatu dituzten hainbat ekimenen berri eman zioten Hakan Demirri. Modu berean, Getxoko Etorkinak Plataforma Federazioko beste elkarte

batzuek ere batu zen, Mexiko Lindo, Mujeres con voz, Filipinetako Sikap, Pargakaisa ProBolivia eta Egizuren ordezkariakaz, besteak beste. Horiek guztiakaz Getxoko ondarearen parte legez antolatzen dabiltzan kultur ondarea ospatzeko ekitaldien inguruan jardun zen, bertako eta atzeritarren arteko harremanguneak sustatu gura dituzten ekimenen gainean ere bai. ◀

Islamaren inguruko mintegia egingo dute zapatuan, Algortan

Zapatu honetan, azaroaren 12an, Islamari buruzko zurrumurruak: emakumeak menderatuta daude? izena duen mintegia egingo dute Algortako Villamonteko kultur etxean, goizeko 11:00etatik aurrera. Zurrumurruren aurka sakontzeko izango da jardura hori, Getxoko Udalak antolatuta.

Mintegian parte hartuko duen hizlaria Natalia Andújar Chevrollier izango da, Andaluziako Zurrumurruren aurkako Sareko eta Sare Musulmaneko kidea da. Interesa duten udalerriko auzotar guztiei zuzenduta dago saioa; hala ere, zurrumurruren aurkako agenteek lehentasuna izango dute, antolatzailerak jakinarazi dutenez. Mintegian



parte hartzeko interesa duten pertsonen izena eman beharko dute alde aurretik, herritarren arretarako bulegoetan edo Getxoko Udalaren Zurrumurruren aurkako Estrategiak duen webgunearen bitartez. ◀

info+: www.getxo.eus/antirumores

Oraindino ere GetxOnegin lehiaketaz gozatu ahal da

Pasan den zapatuan hasi zen VII. GetxOnegin pintxo-lehiaketa. Hala, aste-akabuan udalerriko hainbat osatutara bertaratu zirenek 58 pintxo bereziz gozatzeko aukera izan zuten, euro batean. Jardueraren egun bi igaro dira, baina oraindino ere beste bi gelditzen dira: zapatu eta domeka honetan, hilaren 12a eta 13a. Gastronomia eta euskara uztartzen dituen lehiaketa da GetxOnegin; hori dela-eta, euskararen erabilera sustatzeko, kontsumitzaileei jolas bat proposatu diete: pintxoek osagai sekretu bat dute eta hori asmatzen dutenak sari batzuen zozketan sartuko dira; eta horren inguruko testua euskaraz idazten dutenak ere bai. Hau da,

alde batetik, osagai sekretua zein den igartzen dutenen artean honakoak zozkatuko dituzte: *ipod* nano bat; Basalbo baserrian lagun birentzako afaria; sarrera bi Athleticen partida bat ikusteko; sarrera bi Bilbao Basketen partida bat ikusteko; eta, Uniduo Selección taldearen 50 euroko erosketa-txartela. Bestetik, osagai sekretuaren gainean bidaliko diren testurik onenen artean, honako sariak banatuko dira: erloju bat, Iñaki Bitxitegiaren eskumenez; *ipod* nano bat; sarrera bi Athleticen partida bat ikusteko; sarrera bi Bilbao Basketen partida bat ikusteko; eta kosmetika ekologikoz egindako bilduma bat, Landalore etxearen eskumenez. ◀

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak
Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34
Gura izanex gero, etxera eroango dizugu egunkaria!

portu zaharra bar
Portu Zaharra Kalea 35
48901 Algorta-Geloa
Tf. 94 468 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK
Eraikuntza zerbitzu integralak
Ileta, 1.48991 ALGORTA
94 430 52 43 · 607 952 977
regaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz

Erandio

Kultur eta zerbitzu- ekipamendu gehiago

Altzagako kultur azpiegiturak berritzeko «lan oso handi» bati ekingo diola iragarri du Udalak. HAZ bi ere egingo ditu.

Altzagako 10.500 biztanleei zerbitzu hobea emateko asmoz, liburutegi berria zabalduko dute Antonio Trueba eta Legazpi kaleen eta Antonio Trueba zeharkaldiaren artean, udal Babes Ofizialeko Etxebizitzaren (BOE) etxabeetan libre dauden lonjetan, Sentinel rock-areto zaharraren aurrean. Modu berean, Herritarrentzako Arreta Zerbitzurako bulego bana sortuko dute Altzagan eta Astrabuduan. Hala, Jesus Aranburu kalean BBK-k utzitako behin-behineko instalazioetatik aterako da liburutegia, antzinako lekura bueltatzeko, aspaldi Legazpi eta Antonio Trueba kaleen kantoian baitzegoen, orain dauden etxeak eraiki aurretik.

Lanak hiru fasetan egitea aurreikusi du Udalak. Lehenengoan, liburutegia egokituko dute. Ondoren helduko zaie txanda ludotekari eta, azkenik, KZ Guneari. Liburutegiaren proiektua daborduko onartu du Udalak, eta esleipen-fasean dago. Proiektuan, 1.052 metro koadro aurreikusi dituzte, dena. Horietatik liburutegiak 752 me-



HAZ bulegoak 2017ko apirilerako prest egongo omen dira. © ERANDIOKO UDALA

tro koadro izango ditu eta beste 300 metroak beste gunetarako eta gunekomunetarako izango dira. Hasieran, Udal iturriek aurreratu zuten, liburutegiak sarbidea partekatuko du Herritarrentzako Arreta Zerbitzuko (HAZ) bulegoagaz, udal zerbitzu horretan hainbat administrazio-tramite egin ahal izango dira, udaletxeraino joan barik. Obrak 2017an hasiko dira eta udarako amaitzea espero dute udal arduradunek. Lanak gauzatzeko aurrekontua 503.000 eurokoa da, BEZA

barne. Horrez gainera, Udalak beste 150.000 euro bideratuko ditu liburutegiko altzarietarako.

HAZ berriak

Altzagako HAZ bulegoari dagokionez, Antonio Trueba zeharkalditik izango du behin betiko sarrera. Denera, 206 metro koadro izango ditu, horietatik 165 erabilgarriak. Astrabuduko HAZ bulegoa, oster, orain arteko udal-bulegoko leku berean egongo da, Meso kaleko 20. zenbakian. ◀

ETak Fabio Moreno umea hil zuenetik 25 urte pasatu dira

Pasa den astelehenean, azaroaren 7an, 25 urte bete ziren Fabio Moreno urte biko umea hil zuenetik Erandioako Tartanga auzoan, ETak egindako atentatuan. Umea zihoan autoak eztanda egin zuen, ibilgailu azpian zeroan lehergailua detonatu zenean. ETak Antonio Moreno guardia zibila zuen helburu. Leherketan, umea hiltzeaz gainera, bere anaia bikia eta aita zauritu ziren. Alex Moreno, Fabioren anaia bikia, prest agertu da Javier Martinezegaz, hilketagatik zigortutako etakideetako bategaz berba egin eta kafe bat hartzeko, «gorroto barik». Morenok komunikabideei argitu dienez, «ez diot besarkada bat emango baina hartuko nuke beragaz garagardo edo kafe bat, berba egiteko, esan diezadan zergatik nire aita eta nire anaia. Munduko errespetu denagaz, gorroto barik». Bere us-tez, «agian damutu egin da, ez dut uste egindakoa zuri dezakeenik». ◀

Nagusien Ekimenak txapelketako gala egingo dute barikuan

Erandioko adinekoen eta parte-hartzea protagonismoa sustatzeko, nagusien ekimenak bultzatzeko lehia-keta martxan ipini zuen Udalak, maiztzean. Barikuan, proiektuak aurkeztuko dituzte Altzagako azoka zaharrean, 18:30ean. Sariak banatu eta gala izango da, dantza-talde bat, Mendibaiarte abesbatza eta Galea Orkestragaz. ◀



Saltsan

AMAIA ARRIAGA LEJARRAGA
Herri-langilea

Berdintasun plana, zertarako?

Berdintasun Plana berritzera doazela eta lan-talde batean parte hartzeko deia jaso dugu. Bertaratu orduko dakigu hori ez dela boteregunea. Zelan, bestela, hain gizon gutxi mahai bueltan? Emakumezko udal langileok bizi dugun normaltasun baztertzailak eragindako sumindura adierazten dute gure berbek, eta, bitartean, aginte-makila/zakila dutenak elkarrekin daude beste bulego batean, udal antolakunde sexista eta misoginoa irudikatzen. Berdintasun kontuez hitz egiteko deitzen digute, berdintasuna hautsiz eratutako boteregunean erabakiak hartzen dituztelarik. Gizonei agintea kentzeko ekintza zehatzen Plana behar dugu!!! ◀

Quirón ospitaleko beharginek mobilizazioak abiatu dituzte

Erandioko Quirón ospitaleko 250 ebat langilek mobilizazioei ekin diete lan-balditzen hobekuntza aldarrikatzeko. Aurreko egunotan lantokian pankartak ipini eta auto-ilara egin zuten Akarlanda parketik abiatuta, ospitalearen inguruan, 17:00etatik 18:00etara. Eguen honetan, azaroak 10, esku-orriak banatuko dizkiete gaixoei eta bisitariei. Langile-batzordeak lan-hitzarmen propioa eskatu

du, ELA, CCOO eta Satse sindikatuen babesagaz. Salatu dutenez, espainiar estatuko «ospitale pribatu bakarra gara Langileen Estatutuak arautzen duena». Gaineratu dutenez, Quirónen EAEn dituen beste osasun-zentro biek ere, Bilbokoak eta Donostiakoak, «hitzarmen propioa dute». Bere aldetik, enpresako zuzendaritzak azaldu du lan-batzordeagaz negoziatzen jarraituko duela hitzarmena adosteko. ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



txakoli
motaTx
ganeTx
txakolina
Leioa-Unbe errepeidea 34
(Akarlanda parkea) Golerri-Erandio
94 467 00 07 - www.txakolimotagane.com

Leioa

Vicrilarentzat «etorkizun duina» gura dute beirategiko langileek

Hartzekodunen lehiaketan dago Lamiakoko lantegia; 300 beharginak berriro mobilizatzen hasi dira.

Euren etorkizuna kolokan ikusten dute Vicrilako langileek. Hartzekodunen konkurtsoan dago Lamiakoko lantegia, eta mobilizazioak hasi dituzte beharginek daborduko. «Intentzio hirukoitza» ikusten du operazio horren atzean langile-batzordeak, hala uste du: batetik, ARCK berriro erosi gura duela konpainia, eta salmenta-prezioa merkatu gura duela konkurtsoan, enpleguaren kaltean; bigarrenik, zuzendaritzak gainetik kendu gura duela gaur egungo egoeraren ardura; hirugarrenik eta azkenik, Eusko Jaurlaritzak ez ikusiarena egin gura duela, «berea ere baden proiektu ba-



Martitzenean manifestazioa egin zuten Lamiakoko beirategitik Leioako udaletxeraino.

ten aurrean»; 2012an, 19 milioi inbertitu zituen Gasteizko gobernuak, Mexikon lantegia zabaltzeko. Langileek gogorarazi dute azken urteetan gerrikoa estutu dutela enpresaren onerako,

eta euren ustez lantegia bideragarria da, «Vicrilak Espainiako merkatuko %30eko kuota duelako». 300 lanpostu zuzen dauka Lamiakoko lantegiak, eta, beste horrenbeste, zeharkakoak. ◀

Sinadurak batzen hasi da Gure Esku Dago, herri-galdeketa egiteko asmoz

Inguruko beste herri batzuek hasi-tako bideari jarraituz, herri-galdeketa egiteko asmoa dauka Leioako Gure Esku Dago taldeak, 2017an. Azaldu dutenez, «dinamika hau leioaztarren partaidetzan oinarritzen da»; herri-galdeketa hori diseinatzen hasteko, «milaka bizilagunen sinadura» behar dute. Hala, beste leku batzuen artean, Sabino Arana kaleko 55. zenbakian daukaten egoitzan sina daiteke ekimenaren alde. Izan ere, Leioako Gure Esku Dagok dioenez, «nork dauka azken hitza gure bizitzaren alderdi garrantzitsuenei buruz erabakitze-ko orduan? Erantzun desberdin asko dauzkagu. Askotan erantzun horiek elkarren aurkakoak dira, eta beste askotan, antzekoak. Baina, batez ere, eztabaidatzeko eta jarrera hartzeko gogoia dugu. Bada garaia euskal hiritarrok gure iritzia adieraz dezagun». ◀



Herbehereetako Almende ikastetxeko hainbat neska-mutil Leioan daude egunotan; Betiko ikastolako DBHko 4. mailako ikasleak elkartrukea egiten dabiltza. Zapatu honetan, azaroak 12, elkarri agur esango diete leioaztarrek eta holandarrek. © BETIKO IKASTOLA

Konpontzaileen tailerra abian dauka Leioako Herrigunek

Leioako auzokideak ezagutza teknikoak partekatzea helburu daukan lantaldea abian da. «Entxufea, pertsiana, armairua edo atea konpontzen batera ikastea» da helburua, Herriguneko arduradunek adierazi dutenez. Gainera, «berrerrabiltzeak, berreskuratzeko eta objektuen bizitza luzatzeak zelako garrantzia daukaten birpentsatzea» bultzatu gura dute. Eguenero, 17:00etatik 20:00etara, auzokide talde batek ekintza-tailer horretan parte hartzen du; «beste pertsona batzuk laguntzeko asmoz, irtenbideak bilatzen dituzte eta besteakaz partekatzen dituzte», azaldu dutenez. ◀

info+: herrigune.org

Gurasoen partaidetza areagotu gura dute herriko ikastetxeetan

Leioako Udalaren Hezkuntza Sailak Denon Artean izeneko programa martxan ipini du Altzaga, Artatza-Pinueta, Lamiako, San Bartolome eta Txomin Aresti hezkuntza-zentroetan. Familien partaidetza areagotu gura dute eskola arloan, bertoko arduradunek adierazi dutenez. Euren berbetan, «aita-amek euren seme-alaben ikasprozesuetan eskolagaz batera parte har dezaten lortzea da asmoa». Hasiera batean, egitasmoa otsailera arte luzatzea aurreikusi zuten. Bestalde, aipatu dutenez, programa hori Haur Hezkuntzako hainbat gelatan abian ipini duten Poli Untzia programagaz estu lotuta dago. ◀

Ohitura osasungarrien gaineko mezu laburren lehiaketa

Leioaztarren artean, ohitura osasungarriak sustatzeko mezu laburren lehiaketaren lehenengo edizioa antolatu du Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailak; herritar guztiei dago zuzenduta. Sariaketa horren helburua, leioaztarren artean ohitura osasungarriak sustatzea da, mendekotasun-egoerak saihesteko eta pertsonaren autonomia bultzatzeko, bertoko arduradunek adierazi dutenez. Hala, udalerriko

bizilagun denei proposatu diete lehiaketa horretan parte-hartzea. Irabazten duen mezua 2017ko Zainduz Leioa egitasmoaren publizitatean txertatuko dute; horrez gainera, 100 euroko saria (25 euro banako lau bonutan) jasoko du horren egileak, lehiaketan parte hartu duten Leioako saltokietan erabiltzeko. Azaroaren 11ra arte aurkeztu ahal izango dira mezuak. ◀

info+: www.leioa.net

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

Ikastolen Elkartea

Sopela



Belar artifizialeko futbol-zelaia zaharberritzeko beste 200.000 euro bideratuko dituzte.

Urko kiroldegia konpondu gura dute

Kirol-azpiegitura osoa zaharberritzeko lanek 600.000 euro inguru balio izango dute.

Udalaren arabera, «ehunaka dira» Sopelatik bertatik zein inguruko udalerrietatik egutero Urko kiroldegira joaten diren lagunak. 2003an inauguratu zen kirol-azpiegitura. «Urte horietako guztietako erabilpenaren ondorioz, zaharrituz joan dira bertoko instalazioak», agintari sopoloztarrek adierazi dutenez. Hala, kirol-jarduerak bultzatzen jarraitzeko asmoz, «hartutako konpromisoari eutsiko dio Udalak»; kiroldegia berritzeko obrak 2017ko lehen hiruhilekoan hastea espero dute.

Gontzal Hermosilla alkateak azaldu duenez, batez ere, «erabiltzaile guztien segurtasuna bermatu» gura dute; ildo horretan, hainbat ekipamendu hobetu eta gaurkotuko dituzte. Urko kirolde-

giaren kanpoaldea zein barrualdea berriro egokitzeko egin beharreko inbertsioa 600.000 euro ingurukoa izango litzateke, udal-agintarien arabera.

Futbol-zelaiko belarra

Obra horiei ekin baino lehen, ordea, Urkoko belar artifizialeko futbol-zelaia zaharberrituko du Sopelako Udalak. Zabalduetako informazioaren arabera, hobekuntza-lanek hilabete bi inguru iraungo du, kirol-zelaiaren zorua birgaitzeko. Alde batetik, gaur egungo zelai sintetikoa berri batengatik ordezkatzeko dute; eta, beste aldetik, ateak eta hesien sareak ere berriro egokitzeko dituzte. Lanek 200.000 euroko aurrekontua dute. Udal-arduradunek espero dute 2017. urtearen hasierarako prest egotea Urkoko zelai artifizial berria.

Urkoko futbol-zelai artifiziala 2001ean instalatu zen eta, oraindik, dirauen belar artifizialak 15 urteko bizi-izan du. Baina urteotan «futbol-zelaia asko hondatu da».

Diru-laguntzak eskatzeko epea zabaldu du Udalak

Daborduko Sopelako Udalaren iragarkien ohelean ipini dute 2016ko diru-laguntzen deialdia. Subentzio horiek bost eremutara daude bideratuta: emakumea, kirola, hirugarren adina, kultura eta lankidetzaren arloetara, beren-beregi. Hala, diru-laguntzak eskatzeko epea azaroaren 14ra arte egongo da zabalik; eskabideak udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira.

Diru-laguntzen oinarriari jarraituz, Udalak 3.000 euro banatuko ditu, gehienez, 2016an udalerrian burutzen diren emakumeen inguruko ekintzen artean. Bestalde, kirolaren arloan diruz lagundu ahal izango diren jardueren artean, 10.000 euro banatuko dira, gehienez. Hirugarren adinari dagokionez, 1.000 euro izango dira emango dituztenak, gehien jota. Lankidetzaren arloetara, oster, 22.000 euro baino gehiago ez dituzte bidera-



Udaletxera jo beharko dute eskatzaileek.

tuko. Azkenik, kulturaren arloan diruz lagundu ahal izango diren jardueren artean, 40.000 euro banatuko dituzte, gehienez. Zehaztu dutenez, «laguntzok ohiko jardunaren gastuetarako bideratuko dira, hau da, diru-laguntza ematen den ekitaldian erakunde eskatzailearen ohiko funtzionamenduko programako jardueretan gastatzeko».

info+: sopelaudala.org

Hondurasko egoeraren inguruan egingo dute berba

Burik honetan, azaroak 11, Hondurasko ematen diren giza eskubideen urraketak ezagutzeko aukera egongo da, bertako aktibista baten ekimenez. Plaza Beltza elkarteak eta Joxemi Zumalabe Fundazioak antolatutako berbaldia 19:00etan izango da, Kurtzio kultur etxean; sarrera, doan. Gaztelaniaz emango dute. Joxemi Zumalabe Fundazioak azaldu duenez, «Hondurasko oligarkia eta AEBek bultzatutako Manuel Zelaya presidentearen aurkako 2009ko estatu kolpea, herrialdean korrupzioa, zerbitzu publikoen pribatizazioak, segurtasun eza eta giza eskubideen urraketa larriak jasaten dabilta».

Ondarearen gaineko jardunaldiak ez dira amaitu oraindik

Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, *Silexaren bila* izeneko erakusketa egongo da ikusgai urtarilaren 6ra arte, Kurtzio kultur etxean; sarrera, doan. Ordutegiari dagokionez, astelehenean domekara bisita daiteke, 17:00etatik 20:00etara, jaiegunetan izan ezik. Horrez gainera, erakusketa-aren barruan, hiru bisita gidatu egingo dituzte; lehenengoa, euskaraz izango da; azaroaren 16an, 19:00etan. Diego Garate arkeologoak emango ditu azalpenak. Bisita doakoa da. Baina, aldeztu aurretik izena eman beharko dute parte hartu gura dutenak; izan ere, lekukopurua mugatua da.

izen-ematea: hall-kulturala@sopela.eus

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

ander deuna batxilergo

hau herikuntzatik

Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunakastola.eus

DIDAK HAMILTON

IDIOMAS

Ingelesa · Frantsesa · Alemaniera

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6/Iberre 9 · 48600 SOPELA
94 676 30 12
info@didakhamilton.com

Berango

Aurrekontuei begira

Udalak 2017ko aurrekontuak osatzeko prozesu parte-hartzailea abiatuko du, herritarren iritziak jasotzeko.

Udalak 2017ko aurrekontuak osatzeko prozesu parte-hartzailea abiatuko du. Hala, berangoztarrek euren proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte. Modu horretan, Anabel Landa alkateak eta Carlos Collado Ogasuneko zinegotziak nabarmendu dutenez, «auzoki-deentzako lehentasunezko gaiak zeintzuk diren ezagutu ahal izango dira». Prozesu parte-hartzaileak hiru fase izango ditu. Lehenik eta behin, auzokideek proposamenak aurkezteko epea zabalduko dute; ondoren, teknikariek ideia horien bideragarritasun ekonomikoa eta teknikoa aztertuko dute, eta, azkenik, aurrekontuetan txertatuko diren proiektuak jakitera emango dituzte. Aste biko epea egongo da proposamenak aurkezteko; oraindik Udalak ez du jakinarazi zein datetan izango den hori. Udalari dagokion konpetentziako ideiak bakarrik aurkeztu ahal izango dira, honako jardun eremuakaz lotuta-



info+: Hiruka.eus/berango.

koak: Hirigintza, Lanak eta Zerbitzuak, Berdintasuna, Kultura, Hezkuntza, Euskara, Gazteria, Droga-Mendekotasunen aurkako Prebentzioa, Ingurumena, Osasuna, Herritarren Seguratasuna, Herri-Babesa eta Gizarte Ekintza. «Udalak aurrekontuetan sartuko dituen aukeraturako proiektuen behin-betiko zerrenda jakinaraziko du eta, urte horretako kontuekin finantzatu ezin direnak, interesez bezala jorratuko dira

eta 2018ko aurrekontuetan hiritarren parte-hartzearen menpe ipiniko dira, beti ere egokitzen hartzen badira eta beraien izaera estrategikoa mantentzen badute», azaldu du Calladok.

Berangon erroldatutako eta 16 urte-tik gorako gizon-emakume denek parte hartu ahal izango dute prozesu horretan, baita udalerrian egoitza soziala duten entitateek eta nortasun juridikoa duen edozein elkartek ere. ◀

Etxebizitza hutsek % 20ko gainordaina izango dute OHZn

Aldundiak egindako katastro-baloarearen errebisioaren ostean, Berangoko eraikinen % 51k igoera txikia jasango dute OHZn. Bestalde, eraikin berrienek, gainontzeko % 49, gutxiago ordaindu beharko dute, euren balorea eraiki zuten urtearen arabera berritu dutelako. Hala, Berangoko Udalbatzak % 0,16ko karga ezartzea onartu du; gaur egun % 1,22koa da. Halaber, urtebete baino gehiago hutsik dauden etxebizitzek % 20ko gehikuntza izango dute OHZn. Eusko Jaurlaritzaren alokairu sozialerako programan dauden higiezinak, berriz % 50eko onura jasango dute. ◀

Adineko pertsonen zuzendutako ekimen bi antolatu dituzte

Azaroaren 16an, eguaztenean, etxe-ako arriskuen prebentzioari buruzko hitzaldia egingo dute Nagusien Etxean, 18:00etan. Hizlaria Ainara Paniagua psikologian lizentziatua izango da. Azaroaren 22an eta 24an, berriz, adineko pertsonen zuzendutako erlaxazio-tailerra eskainiko du Begoña Frutos psikologoak, Gaztegunean, 17:30ean; izena eman behar da aurretik. ◀

Urduliz

Ospitalearen aparkalekua egiteko obrak finantzatzeko ditu Udalak

Lur azpiko parkinga izango da, eta 278 auto sartzeko leku-kopurua izango du, hiru solairutan banatuta.

Urdulizko Udalak finantzatu eta kudeatuko du Alfredo Espinosa ospitalearen ondoan eraikiko duten lur azpiko aparkalekua eta horien gainean egongo diren establezimendu biak, Urduliz Urbanismo Sozietatea eta S.A. udal sozietatearen bitartez. Erabaki hori hartu du Udalbatzak, nahiz eta EH Bildu eta Denok Batera alderdiak horren aurka agertu diren. Susan auzokideen elkarteak ere neurri hori kritikatu du, eta diotenez, azpiegitura hori Osakidetza finantzatu beharko luke. Aparkalekuak hiru solairu izango ditu, horietako bi lur azpian



Lur azpiko aparkalekuak 278 auto hartzeko ahalmena izango du.

egongo dira eta aurrekontua 8,5 milioi euro baino gehiagokoa izango da. Bertan aparkatzeko tarifa 1,5 euro orduko izatea aurreikusi dute.

Bestalde, Bizkaiko Batzar Nagusiek baztertu egin dute Urdulizko ospitalea

eskualdeko trafikoaren planteamendu eta fluxua ikertzeko lanean sartzea. EAJren ustez, aurreikusitako sarbideak «nahikoak» dira ospitaleari erantzuna emateko. Halere, oraindino horiek ez dira bere osotasunean eraiki. ◀

Etxebizitza tasatuen zozketan izen-ematea zabalik dago

Urdulizko Udalak etxebizitzak eskatzen dituzten gizon-emakumeen udal-erregistroan izena emateko epea zabaldu zuen joan den azaroaren 4an. Arduradunek jakinarazi duteenez, erregistro horretan izena ematea beharrezkoa da kiroldegia ondoan eraikiko dituzten etxebizitzak tasatuen zozketan parte hartzeko. Guztira, 35 etxebizitza eraikiko dituzte gune horretan; hala, horietakoren bat eskuratzeko interesa dutenek Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute eskaera, aurkeztu beharreko agiri guztiakaz batera, udaletxeko beheko solairuan, astelehenetik barikura, 08:30etik 13:30era. Hilabete bateko epea egongo da horretarako.

Hala, epea amaitu ostean, Udalak eskarien zerrenda helaraziko dio sustatzaileari. Ondoren, berak zozketa antolatuko du (oraindino ez dute eguna finkatu). ◀

Gorliz



HAPOn Aurrerapenari alegazioak edo iradokizunak egiteko hilabete biko epea egongo da.

HAPOn aurrerapena

Hirigintza antolatzeko alternatibak, aurkeztuta; zelako Gorliz gura duten eztabaidatzeko.

Udalerriaren Hiri-Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) Aurrerapena jendaurrean aurkeztea onartu zuen Gorlizko Udalbatzak urriko osoko bilkuran, denen adostasunagaz. Orain dela urte bi edo hasi zuten HAPO berritzeko prozesua; urte luzez egon da egokitu barik aurreko HAPO, «guztiz zaharkituta zeuden udalerriko arau subsidiarioak» Arantza Etxebarria alkateak onartu duen legez.

Getxoko Estudio K-k egin du HAPOren Aurrerapena, MASen laguntza izan du alde juridikoan, Basoinsarena ingurumen kontuetan, eta ADO2 Consulting arduratuko da Plana jendarteratzeko prozesuaz eta parte-hartzeaz. Azken

hori helburu, HAPOren Aurrerapena ezagutzeko aukera egongo da laster, Sertutxenan ipiniko dute-eta ikusgai; gainera, elkarteakaz zein herritarraz ere tailerrak antolatuko dituzte euren iritzia eta iradokizunak jasotzeko (oraindino ez dute datarik zehaztu).

Bost alternatiba

Hiri Antolamendurako Plan Orokorren helburua da udalerria antolatzeko gidalerroak jasotzea, indarrean dauden jarraibideak kontuan hartuta (LAG, LZP etab). Hala, lurzoruaren kalifikazioa (eraikigarria, babestua, etab.), etxebizitzak eraikitze beharra, azpiegituren beharra jasotzen du Planak, besteak beste. Gorlizko HAPOren Aurrerapenak 5 alternatiba edo proposamen egiten ditu: o, A, B, C eta D. Horien desberdintasun nabarmen nagusiak eragiten dituzte Aranabarri, Iturralde eta Urezarantza gunetako egitasmoek. ◀

info+: hiruka.eus/gorliz

Gazteentzako grafitti-tailerra antolatu du Mankomunitateak

UK Gaztea programaren barruan, gazteei begirako grafitti-tailerra eskainiko du zapatuan, hilak 12, Uribe Kostako Mankomunitate Zerbitzuak. Hala, ikastaroan parte hartu ahal izango dute Mankomunitatea osatzen duten herrietako gazteek, hau da, barrikoztar, berangoztar, lemoiztar, plentziar, sopeloztar eta urduliztar neska-mutilek. Adinari dagokionez, 13 urtetik 18 urtera artekoentzako taile-

rra izango dela jakinarazi dute antolatzaileek. Tailerra euskaraz emango dute eta doakoa izango da. Esan legez, zapatu honetan ipini dute hitzordua, arrastiko 06:00etan elkartuko dira Gorlizko Gaztelekuan (Ibarreta, 4). Mankomunitateak kontu hartzeko eskatu du: parte-hartzaileen leku-kopurua mugatua da; beraz, «lekuak agortu arte» egongo da parte hartzeko aukera. ◀

info+: gorlizkogaztelekua@gmail.com / 688713430

Zu eta biok, hirukan, bultzada bera!



...eta abantaila ugariz goza egizu!



Urtean, gutxienezko 35 euroak ordainduta, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzaile eta partaide izango zara.



hiruka.eus/harpidetza/laguna/
hirukakoop@hiruka.eus
 94 491 13 37 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Aberriaren 13ko Data Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 lege Organismoaren arabera, erabiltzaileei HIRUKAren emandako datuak fixategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzailearen hirugarren datuak jasotzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikitatea helarazteko. Bestelako erabiltzailearen aurreko baimen zehatza behar du. Erabiltzaileak nahi duenean datuak zuzentzeko edo kentzeko bere eskutideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Plentzia

Hozkailu solidarioa, prest!

Janaria botatzeari aurre egitea da hozkailu horren helburua; udaletxeko arkupeetan kokatuta dago.

Joan den barikuan, hilaren 4an, Hozkailu Solidarioa inauguratu zuten Plentziako udaletxearen arkupeetan. Zortzi hilabete eman dituzte proiektua gauzatzeko eta, azaldu dutenez, «helburua janariaren xahutzeari aurre egitea da». Horrenbestez, edozeinek erabil dezake hozkailua, janaria uzteko zein hartzeko. Ekimenaren nondik norakoak azaltzeko kartelak ipini dituzte hozkailuaren ondoan. ◀



Datozen Gabonetako ekimenetan izena eman daiteke

Gabonak heldu baino lehen, hobe hainbat kontu prest izatea; hala, oporraldi horretan Ludotekak eskainiko dituen ekimenetarako izen-ematea zabaldu du Udalak. Eskaintza 2003. eta 2012. urteen artean jaiotako neska-mutilei zuzenduta dago, abenduaren 26tik urtarrilaren 5era arte hainbat ekimenetan jolasteko. Interesa dutenek izena emateko aukera izango dute azaroaren 11ra arte. Bestalde, Umeentzako Gabon Parkerako irteera egingo dute abenduaren 29an; joan gura duten 2003. eta 2010. urteen artean jaiotakoek hilaren 14tik abenduaren 2ra bitartean izena eman beharko dute. ◀

Lemoiz

Gabonetako udalekuetan izena eman daiteke, daborduko

Udagoiena hasi baino ez den arren, bada garaia Gabonako oporrei begira ipintzeko. Euria, hotza, iluntasuna... garaiko giro goibelean murgilduta gaude, hala ere, eskola-umeak oporraldi hotz bezain magiko horien begira daude daborduko. Hori dela-eta, Lemoizko Udalak Gabonetako Udalekuak antolatu ditu garai horietarako. Hala, udalerriko neska-mutilek abenduaren 26, 27, 28, 29 eta 30ean zein urtarrilaren 2, 3, 4 eta 5ean antolatuko dituzten hamaika ekimenez gozatzeko aukera izango dute.

Udalekuok adin-tarte biko neska-mutilei begirakoak dira: batetik, 3 eta 5

urte artekoei; eta, bestetik, 6 eta 12 urte arteko gaztetxoei. Jardueren ordutegia 09:00etatik 14:00etara artekoa izango da, eta, guztira, 30 lagunentzako lekuak egongo dira. Horrenbestez, horietakoren batean parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute aldezturik, Lemoizko kultur etxean edota Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko euskara zerbitzuan, e-mail bidez. Horretarako epea azaroaren 18ra arte egongo da zabalik, arduradunek jakinarazi dutenez. Ordainketak, berriz, azaroaren 24tik abenduaren 4ra arteko epean egin beharko dituzte. ◀

info+:euskera2@uribekosta.org / 688 654 770

Barrika

Urtebetez pilatutako hondakin guztiak kentzera behartu dute

Lurzoru pribatu batean pilatutako hondakinen metaketa bat garbitzeko agintzen duen dekretu baten berri eman zuen Barrikako alkateak Udalbatzaren iraileko osoko bilkuran. Hondakinak eremu pribatuan pilatuta egon arren, babestutako eta ez-ohiko eremutzat katalogatutako zoruan daude. Hori dela-eta, Txipio Bai talde ekologistak horren berri eman zion Udalari. Ekologistek salatu dutenez, eraikuntzako hondakin-pilaketak bertan daroa 2015eko irailetik. Udalagintariak azaldu duenez, hilabete bat behar izan dute lurzoru horren uga-zabagaz harremanetan ipintzeko, «ez



dagoelako Barrikan erroldatuta». Ja-beak dienez, bertan pilatutakoak ez dira obra-hondakinak, harri-hormak baino. Hala ere, horiek lekutik kentzen hasi dela jakinarazi du Udalak. ◀

Uribe Kosta

Erabakitze eskubidearen aldeko martxa, azaroaren 20an

Azaroaren 20an, domekan, erabakitze eskubidearen aldeko mendi martxa egingo dute eskualdeko hainbat herritako Gure Esku Dago taldeek. Ibilaldiak Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizetik irtengo dira, bakoitza bere orduan; izan ere, denek egon beharko dute 13:00etan, Plentziako Ontziola plazan, hantxe elkartuko dira herri bakoitzetik ateratako talde guztiak. Bertan, sinadura-batzeen aurkezpen-ekitaldia egingo dute denek batera. Antolatzaileek azaldu dutenez, ekitaldi horretan «hilabeteotan Uribe Kostan jasotako sinadura-kopurua» jakinaraziko dute. Hala,



Plentziako Ontziola plazan izango da ekitaldia.

sinadura-batzearen prozesuari amaiera eman, eta hurrengo fasea hasiko dute: galdera adostekoa. Ostein, dantza-plaza eta mokadutxoak egongo dira. ◀

Gazteek lana bilatzeko ikastaroa, Sopelan eta Gorlizen

Uribe Kostako Behargintzak antolatu du 30 urtetik beherako neska-mutilentzako ikastaroa: lana bilatzeko sare sozialak tresnatzat zelan erabili beharko lituzketen jorratuko du. Tailerra Sopelan eta Gorlizen eskainiko dute. Lehenengo herrian, azaroaren 14tik 17ra izango da, 16:00etatik 18:00etara, Kurtzio kultur etxean. Gorlizen, berriz, azaroaren 21etik 23ra arte egingo dute tailerra, Sertutxenako KZ Gunean, 16:00etatik 19:00etara. Bertan parte hartu gura dutenek aldezturik izena eman beharko dute, leku-kopuru mugatua baita bietan. ◀

info + :www.gaztebiz.eus / www.urkobe.eus

Familia hazteko gunearen topaketak antolatu dituzte

Familia eta hezkuntzaren inguruko topaketak egingo dituzte bigarren. Jardunaldiok eskualdeko hainbat ikastetxetan izango dira, eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleen familiei zuzenduta daude. Topaketek hiru tailer izango dituzte, eta ikastetxe ezberdinetan izango diren arren, gurasoak euren interesen arabera berbaldietara joatea ahalbidetu gura dute antolatzaileek. Topaketetan parte hartu gura dutenek izena eman ahal izango dute azaroaren 14ra arte, ikastetxeetan edo Mankomunitateko herrietako kultur etxeetan. ◀

info+: www.uribekosta.org



Ordutegiari dagokionez, 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik aretoa. © GETXOKO KULTUR ETXEA

Ekitaldi batzuk

Azaroak 12, zapatua

11:15-12:45 Japoniera ikasten hasteko tailerra, hirugarren gunean.

11:30-12:30 Sushi-dastaketa, jatetxean.

12:45-14:15 Ilustrazio-tailerra (R. Hayatsu), hirugarren eta laugarren guneetan.

17:15-20:45 Lehiaketa, *Hearthstone* bideo-jokoan.

19:15-21:00 Cosplay lehiaketa, agerlekuan.

Azaroak 13, domeka

11:15-12:45 Bideo-jokoak sortzeko tailerra, laugarren gunean.

11:15-14:15 Japoniako ohiko jolasak, lehenengo eta bigarren guneetan.

12:00-14:00 Aikido-erakustaldia, tatamian.

17:15-18:15 *Otaku Talwent* lehiaketa, agerlekuan.

19:15-20:15 Karaoke-lehiaketa, agerlekuan.

20:30-21:00 Full metal harmony taldearen kontzertua, agerlekuan.

info+: www.salondelcomicdegetxo.net

Ekialdeko binetak

Getxoko Manga Jaialdia egingo dute zapatu eta domeka honetan, azaroak 12 eta 13, Areetako Xake plazan ipinitako karpan. Sarrera 3 euroan egongo da.

Azaroaren 12an eta 13an egundoko protagonistak izango dira ekialdeko komikiak Getxon; aurtan ere, Manga Jaialdia antolatu duteeta. Egun bietan, Areetako Xake plazako karpak 23 saltoki izango ditu; horietan erosi ahal izango dituzte bisitariek manga-nobedadeak, anime-filmak (japoniar ani-

mazioa), *bookartak* eta bestelakoak. Zenbait manga-elkarte arduratu dira jaialdiaren egitaraua antolatzeaz, eta hainbat jarduera egongo dira asteakabu osoan. Ohi den legez, jendearen parte-hartzea bultzatu gura dute horien bitartez.

Lehiaketen atalean, bideo-jokoen txapelketa nabarmendu beharrekoa

da. Aurtan, *League of Legends* eta *Hearthstone* jokoak aukeratu dituzte lehiatzeko. Bestalde, ez dira faltako ohiko sariketak: *cosplay* (mozorroak), Otaku Talent (animezale edo manga-zalerik onena saritzen duen lehiaketa), karaoke- eta dantza-txapelketak, barbarako. Antolatuko dituzten tailerrek ere garrantzi handia edukiko dute aurtengo jaialdian. Bisitariek Japoniako tradiziozko jolasak ezagutzeko (GO, adibidez), manga-komikien ilustrazioa egiteko edo *papercrafta* egiten (paperezko figurak hiru dimen-

tsiotan) ikasteko aukera izango dute. Modu berean, 3D animazioa, gozogintza, fantasia-makillajea, *cosplayerako* objektuak eta bideo-jokoen diseinua egiteko tailerrak ere egongo dira, besteak beste. Berbaldi eta mahai-inguruei dagokionez, aurtan gai asko jorratuko dituzte, adibidez: bideo-jokoen sorkuntza Euskal Herrian, bideo-jokoen narratiba eta diseinua eta *cosplaya*. Aurtengo egitaraua Full Metal Harmony taldearen kontzertuagaz eta Ryota Hayatsu japoniarraren berbal-diagaz biribilduko dute. ◀

Dialektoaren txutxuagaz hitzaldia, gaur, Azebarrin

Kepa Altonagak eguen honetan, azaroak 10, *Dialektoaren txutxuagaz* izenburuko berbaldia eskainiko du Algortako Azebarri euskaltzaleon kultur txokoan (Euskal Herria, 14-16). «Euskalkia eta batua, etsaia edo lagun» diren argituko digu *Back to Leizarraga* (2015, Pamiela) saiakera-liburuaren egileak. Kepa Altonaga Sustatxa (Loiu, 1958) algortartutako biologo eta idazleagaz hitzordua 19:30ean ipini dute; sarrera, doan. Aipatutako liburuan, «gaur egungo euskal prosaren argaltasunak ikusgarri egiten» ahalegindu zen Altonaga. Liburuak hausnarketara gonbidatzen gaitu; inflexio-puntua izan gura du,



Algortan bizi da Kepa Altonaga loiutarra.

euskal prosa beste begi batzuek ira-kurtzen lagun dezakeena. Bestalde, Elhuyarren Merezimendu Saria jasozuen Altonagak maiatzean, zientziaren dibulgazioan eta euskararen normalizazioan egindako lanarengatik. ◀

Kultur produktuen kontsumoa bultzatzeko bonua plazaratu du Bizkaiko Foru Aldundiak

Bizkaiko Kultur Txartela (BKT) argitaratu du Aldundiak aurtan ere; 2016ko abenduaren 12tik 2017ko urtarilaren 28ra arte egongo da salgai, Kutxabanken orotarako kutxazainetan. BKTk hiru kategoria dauzka: A motakoa (32 eurokoa), erdarazko edozein kultur produktu erosteko; B motakoa (28 eurokoa), erdarazko kultur ikuskitzunerara joateko (zinema, antzerkia, musika...) eta museoak bisitatzeko; eta D motakoa (24 eurokoa), euskarazko produktuak erosteko eta euskaraz egindako kultur ikuskitzunerara joateko sarreretarako. BKT denakaz 40 euro edukiko dituzte kontsumitzaileek kultur produktueta gastatzeko. ◀

Ganbara, euskarazko zinemaren gordailua, Internet bidez eta doan kontsulta daiteke

Zinea Sortzen etxeko zuzendari Ritxi Lizartzak eta *Zinea.eus* atariaren kudeatzaile Maialen Goñik Ganbara izeneko euskarazko zinemaren gordailua aurkeztu zuten urriaren 27an, Donostiako Tabakaleran. Euskal zinemaren inguruko informazio osatua (filmen zerrenda, profesionalen aurkibidea, gidioak, albiste eta kritikak...) daukan datu-basea da Ganbara, eta doan kontsulta daiteke bere webgunean. «Uneotan, 200 film, 400 profesional eta 50 enpresa baino gehiagoren fitxak ikus daitezke, baita haiekin lotutako albistek, kritikak eta zenbait gidoi ere», nabarmendu zuten. ◀

info+: www.ganbara.eus



Maddi Oihenart kantariak *Doi* diskoa aurkeztuko du, azaroaren 20an. Areetako musika-eskolan. © GETXOKO EUSKARA ZERBITZUA

GETXO

Ipar Euskal Herriko kultur adierazpenak, gurean

Iparr Galdu Gabe jardunaldien baturuan, azaroaren 16an, eguaztena, *Herria eta hizkuntza* mahai-inguruo izango da Algortako kultur etxean, 19:30ean; sarrera, doan. Iparraldeko Udalek Herri Elkargo bakarra sortzea onartu dute; Battitta Boloqui Iparr Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluko zuzendaria gonbidatu dute horren inguruan jarduteko. Bestalde, Baio-

nako Etxepare Lizaso lehenengo sail-
katu da Frantzian *Baxoa diplomaren*
(selektibitatea) emaitzetan; Hélène
Charriton ikastetxe horretako zuzen-
dariak berba egingo du gai horretaz.
Egitarauari jarraituz, azaroaren
20an, domeka, *Ozeanoaren konkista*
itzal-antzezlan eskaimiko du Haize
Othondok, 11:00etan eta 12:30ean, Al-
gortako kultur etxean; sarrera, doan.

Hala ere, aurretik izena eman behar-
ko dute (sendigetxo@yahoo.com /
644 277 155) Sendi egitasmoak antolala-
tutako saioa ikusi gura dutenek. Az-
kenik, egun berean, Maddi Oihenart
kantariak *Doi* diskoa aurkeztuko du
Aretako musika-eskolan; baina, au-
rretik, Ione Ibarretxe abeslari getxo-
tarraren Leun taldeak joko du. Kon-
bertua 19:30ean izango da; doan. ▼



SOPELA

Dovlatoven *Maleta*
liburuaz berba egingo
dute irakurleen klubean

Sopelako Irakurle Klubaren hurrengo hitzordua azaroaren 17an (eguna) izango da, 19:00etan, Kurtzio kultur etxean. Oraingo honetan, *Maleta* (1986) liburuaz berba egingo dute; Sobietar Batasunetik AEBetara emigratzeko eroan zuen maletan sartutako objektu bakoitzaz berba egingen du bertan Sergei Dovlatov idazle errusiarrak. ▼

LEIOA

Ulki daitezkeen
irudiak ipini dituzte
Kultur Leioa aretoan

Ulitzeko diren inidiak erakusketa-ri esker, Juan Torrerren kameragaz ateratako erretratu desberdineta-rik eskualkaz «paseatzeko» auke-
ra dago; hainbat artista ezagunen erretratuak daude ikusgai, beste batzuen artean. Espozizioa, aza-
roaren 10etik abenduaren 11ra arte ikusi ahal izango da, Kultur Leioa-ko erakusketa-gelan. ▼

2016/11/08 - 2016/11/10 - 19:30

Latinoamerikaren inguruko dokumental-zikloa

Algortako kultur etxea | Getxo

Zentsura At! jaialdia. Zinea eta zentsura Latinoamerikan zikloaren hiru dokumental eskainiko dituzte martitzenetik eguenera.

Gaztelaniaz. Sarrera, doan. Informazio gehiago:
hiruka.eus/agenda

2016/11/10 - 18:00

Reinas filma

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Genero ikuspegiko zinema. Itzartu emakumeen elkartek antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

2016/11/10 - 19:30

2016/11/12 - 2016/11/13

Getxoko Manga Jaialdia

Areetako Xake plazako karpa | Getxo

Salmenta-gunea, tailerrak, berbaldiak, nobedadeen aurkezpena eta proiektioak egongo dira. Orduategia: 11:00etatik 14:30er eta 17:00etatik 21:00etara. Sarrera: 3 euro.

2016/11/12 - 11:00

Ipuin-kontaketa, ingelesez

Areetako Elkartegia | Getxo
Kids&Us ingeles-akademiarik antolatuta. Doan.

2016/11/12 - 18:30

Boli, Bili, Boli ume-ikuskizuna

Sertutxena eraikina | Gortiz

Kalezulo gaztetxearen bosgarren urteurrena

Ospakizunari jarraituz, zapatuan, azaroak 12, eskalada-txapelketa, sorkuntza-tailerra, bazkaria, horma-irudiaren margotzea, batukada eta disko-jartzeileak egongo dira Kalezulon. ◀

izen+• [Twitter.com/kalezulo](#)[Erandio](#)

Txotxongilo-saioa, Patata Tropikalagaz

Domekan, azaroak 13, *Ezer ez da dirudiena* txotxongilo-emanaldia eskainiko du Patata Tropikala taldeak. Saioa 18:00etan hasiko da, Berango Antzokian; sarrera, doan. Bertan, euskarazko hiru ipuin nahastuko dituzte. ◀

ArgIHlzkiak ikusteko aukera, institutuan

Barikura arte, Goñi Portal kultur gunean egongo da ArgIHlzkiak erakusketan. Ostean, azaroaren 14tik 27ra arte, Uribe Kosta institutura (Gatzamina, zk/g) eroango dute, bertoko parte-hartzaileek ikusteko aukera eduki dezaten. ◀

Zazpi urtetik gorako ikusleentzako antzezlan da. TXINTXARRI



Amour testu bako antzezlan a, Leioan

Marie de Jongh taldearen antzezlanak belaunaldien arteko topalekua izan gura du; emozioak eta gogoetak, egia eta zalantzak... partekatzeko aukera eman gura du. *Amour* de-nontzako antzezlan da: helduentzako ume antzerkia eta umeentzako antzerki «heldua». ◀

Noiz: Azaroak 13, domeka.
Ordua: 18:00
Non: Kultur Leioako entzungela.
Sarrera: 3,75-5 euro.



ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN
V. LEHIAKETAREN ERAKUSKETA

argihizkiak

Azaroaren 11ra arte

Goñi Portal kultur etxean (Plentzia)



Dialektoaren txutxuagaz euskararen gaine ko berbaldia

Azebarri kultur txokoa | [Getxo](#)

Azebarri kultur elkarteak antolatuta. Kepa Altonaga idazle eta hizkuntzalarilagaz; euskalkia eta batua «Etsai ala lagun» diren argituko du. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/11/10 - 19:30

Euskal poetak errezitaldia

Astrabuduko kultur etxea | [Erandio](#)

Keni Orue, Pablo Cabañas eta Loly Rubio olerkariakaz, eta Karmele Sánchez musikariagaz. Euskaraz eta gaztelaniaz. Doan.

2016/11/11 - 17:00

Bat, bi, hiru... festa! umeentzako dantzaldia

San Nikolas ikastola (Algorta) | [Getxo](#)

San Martin edo Hezetasun auzoko jaiak.

2016/11/11 - 17:30

Munduko jolasak

Kultur Leioako arkupea | [Leioa](#)

Barikuetan Jai egitasmoa. Euskaraz. Doan.

2016/11/11 - 19:00

Hondurasko errealtatea ezagutzeko berbaldia

Kurtzio kultur etxea | [Sopela](#)

Plaza Beltza elkarteak eta Ioxemi Zumalabe fundazioak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

2016/11/11 - 20:00

Eskuz Esku eta Lilura

abesbatzen kontzertua

San Martin eliza (Algorta) | [Getxo](#)

San Martin edo Hezetasun auzoko jaiak. Sarrera, doan.

2016/11/11 - 20:00

Jeux D’Anches laukotearen musika-emanaldia

Kurtzio kultur etxea | [Sopela](#)

Musikaldia zikloa. Sarrera: 3 euro.

2016/11/11 - 21:00

Bihotza Gazte bertso-saioa

Azebarri kultur txokoa | [Getxo](#)

Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE) antolatuta. Anjel Mari Peñagarikano eta Millan Telleriagaz. Oxabi musika-taldeak joko du. Sarrera, doan.

2016/11/11 - 21:00

Olé Swing musika-taldea

Kultur Leioako edaritegia | [Leioa](#)

Sarrera: 5-10 euro.

2016/11/12 - 19:00

Aurre sku-txapelketa

San Nikolas ikastola (Algorta) | [Getxo](#)

San Martin edo Hezetasun auzoko jaiak. Juanjo G. Mendibil en omenez. Gizonezkoak, bakarrik.

2016/11/12 - 20:00

Jazz Gaua

Kurtzio kultur etxea | [Sopela](#)

Musikaldia zikloa. Gonzalo Tejada Special Trio taldeagaz. Sarrera: 3 euro.

2016/11/12 - 20:00

Konpositore getxoztarrak izeneko kontzertua

Areetako musika-eskola | [Getxo](#)

Areetxo ganbera-abetesbatzagaz. Sarrera, doan.

2016/11/12 - 22:30

Kuenta Atrás eta El Reno Renardo taldeen kontzertua

Iturgitxi plaza (Algorta) | [Getxo](#)

San Martin edo Hezetasun auzoko jaiak.

2016/11/13 - 19:00

Musika klasikoa zineman saioa

Kurtzio kultur etxea | [Sopela](#)

Musikaldia zikloa. Arteus orkestrak eskainita. Sarrera: 3 euro.

2016/11/14 - 17:30-18:30

Musika-terapiaren tailerra

Romo ikastetxea (Itzubaltzeta) | [Getxo](#)

Sendi egitasmoak antolatuta, 4 eta 8 urte arteko umeentzat (gurasoakaz). Euskaraz. Doan. Izen-ematea: 644 277 155

2016/11/14 - 18:30

Hannah Arendt filma

Algortako kultur etxea | [Getxo](#)

Enclave Getxoko emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Berbaldia ere egongo da. Sarrera, doan.

2016/11/15 - 19:00

Irakurle-kluba

Astrabuduko kultur etxea | [Erandio](#)

Ramon Pinillaren *La higuera* liburuz berba egingo dute. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/11/16 - 19:00

Silexaren bila bisita-gidatua

Kurtzio kultur etxea | [Sopela](#)

Ondarearen Europako jardunaldiak. Euskaraz. Doan. Izen-ematea: hall-kulturala@sopela.eus



Jone Uria Albizuri algortarra hirutan izan da Bizkaiko Bertsolari txapelketan finalista.

Uriarrak baino ez, lehian

Imanol eta Jone Uria algortarrak izango dira eskualdeko ordezkariak bertsolari-txapelketako finalaurrekoetan.

Zaldibarko Olazar frontoia bertsozalez bete zen joan den zapatuan, azaroak 5, Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren Udagoieneko Faseko bosgarren eta azken kanporaketan. Ariketa denak

egin ostean, Nerea Ibarzabal Salegik lortu zuen puntu gehien batzea. Hala, finalaurrekoetarako txartela lortu zuen bertsolari markinarrak, eta bere herrian, Markina-Xemeinen kantatuko du azaroaren 19ko finalaurre-

koan. Hain zuzen ere, saio horretan hasiko da lehian Jone Uria Albizuri algortarra, 2014an finalista izan zelako. Hitzordua 17:30ean izango da, Uni frontoian. Bestalde, azaroaren 27ko finalaurrekoan parte hartuko du bere neba Imanol Uriak, puntuazioaren arabera sailkatu ostean. Egun horretako saioa 17:30ean izango da, Basauriko Artunduaga kiroldegian. Abendua-

ren 3ko finalaurrekoari dagokionez, ez da Uribe Kostako ordezkariarik egongo, Larrabetzuko udal frontoian. Izan ere, Uriarrak izango dira eskualdeko ordezkari bakarrak Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finalaurrekoetan; zoritxarrez, Beñat Vidal Gurrutxaga leioztarrak ez zuen sailkatzeko adina puntu lortu, Zaldibarko azken kanporaketan. Gauza bera gertatu zaie bere anaia Inazio eta Peruri, Arrate Illaro Etxebarria algortarrari, Josu Landeta Egurrola getxoztarrari eta Paule Ixiar Loizaga Legarra sopeloztarrari, aurreko kanporaketetan jardun ostean. Abenduaren 17an, zapatua, jokatu da Finala, 17:00etan, Bilboko Bilbao Arenan, Miribillan.

Sarrerak, salgai

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finalaurrekoetako zein finaleko sarrerak daborduko salgai daude; www.bertsosarrerak.eus orrialdearen bitartez eros daitezke. Horrez gainera, saioen aurretik, txarteldegia 16:00etan zabalduko dira, eta bertan ere eskuratu ahal izango dira. Finalaurrekoetarako sarrera arruntak 11 euroan egongo dira; gazteek, ordea, 5 euro baino ez dituzte ordaindu behar izango. Eta Bertsozale elkarteko bazkideek 8 euroan edukiko dituzte. Finalari dagokionez, hurrenez hurren, 17 euro, 9 euro eta 13 euroan egongo dira sarrerak. ◀

info+: www.bertsozale.eus
sarrerak: www.bertsosarrerak.eus

Hitza emanda



Bihotza

*Gazte-gaztea ez naiz
baizik kontrakoa:
mende erdia majo
igarotakoa.
Bihotza gazte daukat
zein ote gakoa?
Bihotzaren adina
da benetakoa!*



**JOSEBA
SANTXO
URIARTE**
Bertsolari getxoztarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Azaroaren 17an egingo dute berbalagun getxoztarren aurkezpena, afari-merienda inguruan

Udagoienagaz batera berbalaguntalde berriak martxan ipiniko ditu Egizu euskara-taldeak, eta zelan ez, aurkezpena egingo dute urtero legez. Aurtengoa, Algortako Azebarri euskaltzaleon kultur txokoan (Euskal Herria, 14-16) izango da, azaroaren 17an, eguena, arrastiko 7:30ean; eta «danok gonbidatuta gaude», berbalagun-taldeetako arduradunek adierazi dute. «Oraingoan, berba-kafe eta afari-merienda egingo ditugu, 10 euroren truke; eta horretarako, gugaz sukaldean arrastia pasako duten boluntario bila gabiltza. Berbalagunak izan edo ez, su artean gustura ibiltzen bazarete, etorri gugaz», azaldu dute Egizu elkartekoek. Beraz, afari-meriendara joan gura duten denek egizugetxo@gmail.com helbide elektronikora mezua bidal dezakete. Sukaldean lagundu gura izatekotan, oster, 619 935 541 telefono-zenbakira deitu beharko dute boluntarioek. ◀

Peña eta Telleria, Bihotza Gazte saioan

Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE) antolatuta, Anjel Mari Peñagarikano eta Millan Telleria bertsolariek euren eskarmentu handia erakusteko aukera izango dute bariku honetan, azaroak 11, Algortan. Bihotza Gazte bertso-festaren 14. edizioaren osagai nagusiak izango dira Albizturgo bertsolari beterano biak, baina inondik inora ez dira osagai bakarrak izango. Musika-giro ederra ere egongo da, aurtun, Azebarri euskaltzaleon kultur txokoan (Euskal Herria, 14-16) izango den Bihotza Gazte saioan; Oxabi taldeak joko baitu. Hitzordua gaueko 9:00etan da; sarrera doan.

«Argi dago zer ezkututzen den 'bihotza gazte' hitz jokoaren atzean: adinean gora joan arren, bihotzez oraindino ere gazte dauden bertsolarien ordua», Algortako Bertsolari Eskolak dioenez. Baina, ALBEko kideen berbetan, helburua ez da hainbeste plaza asko eta asko egindako bertsolariei



Bihotza Gazte saioak 14 urte beteko ditu.

plaza gehiago ematea, «baizik eta gure eskolako eta eskualdeko gazteei etorri itzela duten beterano horiekaz ikasteko eta gozatzeko aukera ematea».

Ekitaldi hori aspaldikoa dugu, baina azkenengo urteotan bertso-saioari erromeria gehituz osatzen den ekimena egonkortu egin da, eta bertsolarien ize-nak urtetik urtera aldatzen badira ere, azkenaldion erromeria Anjel Larrañaga bertsolari azkoitiarraren eta haren Kupa musika-taldearen esku geratu izan da; aurtun, berriz, Oxabik joko du. ◀



Zulotik

**ARMANDO
LLAMOSAS RUBIO**
Kultura ondarearen teknikaria

Ondarearen jardunaldiak, arrakasta eta gero

Ondarearen Europako Jardunaldiak (OEJ-JEP) pasatu dira. Urtero, urriaren kultura egutegia betetzen dute, eta, urtero, herritarren erantzuna itzela da. Askotan, parte hartzeko ekimen itxietan, epea irekitzen den bezain laster betetzen dira. Hitzaldiak, txangoak, bisita gidatuak... bete egiten dira egun gutxitan. Arrakastatsuak dira, dudarik gabe, eta hausnarketarako ere oso aproposak.

Alde batetik, hain arrakastatsua denez, hasierako tentsioa galtzen da, ekitaldi guztiak beteta daudenez, informazioa eta jardunaldien presentzia murrizten da, ia-ia desagertu arte. Ezin dugu ahaztu, ekitaldiaz gain, tentsio kulturala eta ondarearen protagonismoa mantentzea oso garrantzitsua dela. Nire herrian, adibidez, lehenengo astea behin pasata, ez dut ikusi kartelik, oharrik... ezer ez; jardunaldien ekimenak, ordea, hilabete osoan zehar egin dira.

Beste aldetik, eta jardunaldiak agerian uzten digutenez, milioiko galdera: Zergatik da jardunaldietan egiten den ekimen bat oso arrakastatsua, eta bi aste pasa ondoren, azaroan, lau katu doaz? Benetan bitxia. Triste dauden museoak edo gelak, betetzen dira urrian; aldiz, bi hilabete ondoren, gai berberarekin, zazpi lagun besterik ezin dute bildu. Esan dezakegu Jardunaldiak ondo antolatuta daudela; egia da, baina bere efektuak, soilik, ezin du hainbesteko desberdintasuna azaldu.

Aztertu behar dugu jardunaldiaren publikoa, nongoa, nora eta zergatik doan; zein den bere interesa... Modu horretan hobeto ulertuko dugu gure kultura eskakizuna; hortaz, hobeto eskainiko diogu eta, nagusia, zabalduko dugu. Aprobetxa dezagun OEJ-JEPren arrakasta, eta erabil dezagun egun batzuetatik urte osora eramateko bere onurak. ◀

«Gure senideak ere badira errioxar eta burgostarrak»



Sopelan egin legez, inguruko herrietan aurkeztu gura du bere liburua Alberto Díezek. HODEI TORRES

Alberto Díez Saiz (Gorliz, 1933) historia-ikertzaileak *Vascos, burgaleses y riojanos primos hermanos* bere azken liburua aurkeztu zuen azaroaren 4an, Sopelan.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Zertan oinarritu zara zure azken liburua idazteko?

Nagusiki, Iruñeko erresumako 1016. urteko mapa izan dut abiapuntutzat; horrek betetzen du liburuaren azala. Bertan, argi eta garbi ikus daiteke garai horretan noraino heltzen zen erreinua. Ramón Menéndez Pidal (Coruña, 1869 - Madril, 1968) historialariak berak esan zuen bertoko biztanle gehienak euskal hiztunak zirena. Historian atzera eginez, V. eta VI. mendeetan, Gaztelaraino heldu ziren euskaldunak; batzuk, Errioxatik sartu ziren. Bestalde, barduliarak ere heldu ziren; Gaztela izena ipini aurretik, Bardulia deitzen zen Iberiar penintsulako zati hori, V. mendean.

Mende batzuk geroago, 1016. urtean, Gaztelako kondearen alabarekin ezkondu zen Iruñeko erregea. Orduan finkatu zuten mugaren zati hori. Gertakari hori gertatu eta mila urtera argitaratu gura izan dut liburua.

Euskaraz berba egiten zuten...

Nire ustez, urte berean finkatu ziren erresuma zaharreko gainontzeko mugak, Santanderreko badiaraino heldu

ziren. Arazoa da ez daukagula hori frogazakeen dokumenturik; askotan, galdu egiten dira edo galarazi egiten dituzte horrelako agiriak...

“Ez dut politikan sartu gura. Liburua hor dago; bakoitzak bere ondorioak aterara ditzala”

Orain dela mila urte, euskaraz hitz egiten zuten muga horien artean bizi ziren lagun guztiak. Hizkuntza bera erabiltzen zuten, esan dezakegu garai horretako euskal herritarrek, errioxarrak eta burgostarrak neba-arrebak edo lehengusu-lehengusinak zirela.

Gaur egun ere neba-arreba edo lehengusu-lehengusinak garela diozu.

Bertoko biztanleak kanporarazi ez zituen inbasiorik ez bada egon, ondoriozta daiteke, belaunaldiz belaunaldi biziraun zutela bertoko bizilagunek; hori kontuan izanda, esan dezakegu, gaur egungo euskal herritarrok, errioxarrak eta burgostarrak orain mila

urteko bizilagun horien oinordekoak garela, hortaz, neba-arreba edo lehengusu-lehengusinak garela. Are gehiago, orain dela mila urte guztiak ziren euskaldunak, baita errioxarrak eta burgostarrak ere. Guztiak hitz egiten zuten euskaraz; guztiak osatzen zuten gaur egun Euskal Herria dei daitekeen herrialdea. Familia bereko kideak gara guztiok.

Zergatik hasi zinen gai hau ikertzen?

Gorlizen jaio eta Berangon bizi arren, burgostarrak dira nire arbasoak. Senideek harremana izan duten Burgosko herrien historia ikertzen ibili nintzen, eta niretzat ulertezina bada ere, burgostarrak, errioxarrak eta euskaldunak elkarrengandik oso aldentuta gaudela nabaritu nuen. Beraiek pertsona bixiak baikina bezala begiratzen gaituzte, baita guk beraiek ere. Gure historia-ri erreparatuko bagenio, horren urrun ez gaudela ikusiko genuke.

Zure ustez, garrantzitsua da honen berri ematea?

Gutziz beharrezkotzat jotzen dut hau lau haizetara zabaltzea; baina, politikan sartu gabe. Liburua hor dago; bakoitzak bere ondorioak aterara ditzala. Gainera, ez dut ulertzen, gaur egun horrenbeste hedabide egonda, zelan utz dezaketen hau guztia alde batera. Ondorio okerrak aterara daitezke, historia ezagutu ezean. ◀

«Frankismoari epaiketa bat egiten diogu antzezlanagaz»

Ander Lipus aktore markinarra *Francoren bilobari gutuna* antzezlanagaz Leioan izango da, datorren asteko barikuan, azaroak 18; bezperan, Bilbon taularatu ostean. Frankismoak Euskal Herrian utzitako zauriari ez ohiko begiradagaz erreparatuko diote Leioako Artedramak, Le Petit Théâtre de Pain konpainiak eta Dejabu Papin Laborategiak, zazpi aktorek hezurmamituko dituzten 50 bat pertsonaiaren bidez. Aukera galduz gero, ikusteko beste aukera bat egongo da, abenduaren 9an, Sopelan.



TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Aurrekoan, Ximun Fuchs zuzendariak esan zuen «Franco ez zait batere interesatzen. Tipo horrek ez du antzezlanik merezi». Zergatik egin duzue, orduan, *Francoren bilobari gutuna*?

Berak esan duena da Franco pertsonaia gisa ez zaiola interesatzen, baina bai frankismoak utzi duen arrasto eta oraindino ikus ditzakegun frankismo-mota ezberdinak (frankismoa paralelismo batean ipinita nazismoaren pare), eta horrek dakarren injustizia eta beste mila gauza gaizto edo oker. Franco bera pertsonaia bezala ez zitzaion interesatzen, ezta guri ere; baina berak pertsona moduan eraikitako txarkeria hori guztia bai, eta batez ere gure komunitateari lotuta dagoen txarkeria, aztarna oso mingarri batzuk utzi dituenak, herri honek inoiz merezi ez zituenak.

Zeintzuk dira zuen ustez frankismoak Euskal Herrian utzitako zama horiek?

Obran, modu askotan planteatu dugu hori. Erabilitako materialak, ikertutako eta irakurritako testuek eta historiak berak gogorarazten digu hemen izugarritzko genozidioa egon zela. Adibide batzuk ipintzearen, baditugu: Saturrarango emakumeen kartzela; Gurseko kontzentrazio-esparruan gertatutakoak, euskal herritarrek Frantziara joan zirenean nola pilatuta izan zituzten han; Ezkabako kartzela; gerra bukatu ondoren langileak nola eduki zituzten gati-bulanetan; gerra ondoren ere, izandako hainbat eta hainbat tortura-salaketa; umeak nola beste familia batzuetara eramane zituzten; edo gerra ondoren er-

besteratu behar izan zuten umeek, gurasoek eta beste pertsona askok; euskarak jasan izan duena, eraztunarena adibidez, euskara egiteagatik kastigua eta zigorra...; guk herri eta kultura moduan jasandako txarkeria guztiak. Obran zehar azaltzen dira gure gizarteak, euskal gizarteak, pairatutako txarkeriak eta horiek nolabait belaunaldiz belaunaldi nola azalera-

“ Guk eskutitza bidali diogu Francoren bilobari, ospitaleetako aldizkari arrosetan lasai ikusi dugun *La nietísimari* ”

tzen diren: ametsen bitartez edo gaixotasunen bitartez, Nathalie Zajde psikiatrak esaten duen legez. Memoria historikoan lanean dabiltzan hainbat elkarte daude herrietan... Eta zer esanik ez fusilatuak, desagertuak eta hildakoak: egon ziren hainbat eta hainbat, eta oraindik ez dakizkigunak non dauden. Horrek herri bati, eta familia edo komunitate bati batez ere, sorrarazi ahal dion sufrimendua. Gauza horietaz guztietaz berba egiten du obra honek, ez dela gutxi.

Frankismoa nazismoagaz alderatu duzu lehen. Hura Nurenberg-eko epaiketetan juzgatu zuten,

besteak beste. Hemen, lehenago epaituko du frankismoa antzerkigintzak Justiziak baino?

Badirudi baietz. Guk nolabaiteko epaiketa bat egiten dugu, batez ere Ximun Fuchs ideian hori zegoelako. Bitxia da, baina Ximun Fuchs zuzendariaren historia pertsonalak ere badu zer esateko, eta azkenean gu norbanako bakoitzaren historiak ere, denok bizi izan dugu nolabait aititek edo amamek kontatutako gerra, frankismoa eta trantsizioa ere bai. Ximunena aipatuz, euren gurasoak aitaren aldetik judutarrak ziren, eta bere senide askok Auschwitz bukatu zuten. Eta beste aldetik, euskaldunak ziren eta II. Mundu-Gerran aitita frantziar tropekin borrokatzera pasa zen Espainiara, gero Afrikara joateko. Irunen zegoela guardia zibil bati euskaraz egin zion eta preso hartu zuten; bertako kartzelak eta gaiztakeriak pairatu zituen. Beraz, euskaldun moduan eta judu bezala pairatu zituen bere sendiak txarkeria horiek. Hortik abiatuta, berari bitxia egiten zitzaiona, eta hor dator Günther Anders filosofoak Eichmann-i idatzi zion eskutitza. Berak esaten du nazismoak behintzat auzi bat eduki zuela, alde batetik, Nurenbergen; beste aldetik, Eichman bera Mossad-ekoek hartu zutenean, Argentinan, eta gero juzgatu eta heriotzera kondenatu zutenean Jerusalem. Baina frankismoak ez du auzirik eduki, biktimek ez dute errekonozimendurik eduki, ez da hor gertatutakoaz ia hitz egin. Are txarrragoa, isiltasuna da gehien nagusitu dena etxeetan. Orduan, auzi hori nahi izan da taula gainera eraman; eta metafora gisa baliatu Eichmannen semeai



bidalitako gutun hori, esanez: «zuek ez zarete zuen aitak egindako itsuskeria guztien erantzule, baina bai izan ahal zarete erantzule nazismoa borrokatuz. Azkenean hori da guk bidali diogun eskutitza Francoren bilobari, hau da, *La nietísima*. Oraindino ere trankil- lasai ikusi ahal dugu *Nietísima* ospitaleetako aldizkari arrosatan, bere aititaz hitz egiten, lasai-lasai, pertsona oso ona balitz legez. Günther Andersek ere hori esaten du, pertsona onak ala txarrak izan gaitezkeela guztiok, baina zer egiten dugu horren aurrean? Hori da planteatzen duguna obra honetan, eta beste hamaika kontu, alderdi edo ikuspuntuetatik begiratuta ere.

Proposatutako gai horregaz, zergatik aukeratu duzue ospitale bat obra kokatzeko?

Ospitale batean dena ematen delako: jaiotza, hau da, bizitza; heriotza; gaixotasuna; denetariko jendea dago, zaharrak, umeak... Orduan pertsonaiak margotzeko espazio interesgarria iruditu zitzaigun. Horretaz aparte, uste dut zauri horiek ixteko leku edo metafora egokia dela. Azkenean ospitale batera sendatzera zoaz normalean, nahiz eta lehen esaten zuten hiltzera bakarrik zihoazela. Espero dezagun ospitaleak sendatzea. Bestalde, gaur egungo ospitaleen irudia ematea ere interesgarria iruditu zaigu, batez ere politikoek osasunaren inguruan jokatzenean, edo osasuna pribatizatzeraz doazenean, edo medikuek ordu estrak sartu behar dituztenean ez daukatelako baliabide nahikorik. Gai horiek guz-

tiak ere ukitu nahi genituen, metaforaz aparte, gure iritziz, behintzat, garrantzitsua delako osasun eroso eta on bat edukitzea gure herrian. Europako edozein ospitale izan zitekeen; kasu honetan, Euskal Herriko ospitale bat da, eta gaixo berezi horiek, frankismoa bizi dute. Hor ideia argi bat kontatzen zigun Ximunek, eta talde bezala, gu ados geunden hori konta-

“ Historiak berak gogorarazten digu frankismoaren garaian hemen egundoko genozidioa egon zela ”

tzeko. Garai batean oso ezaguna egin zen Garzónen «dena da ETA» esamoldea, eta guk irudikatu nahi genuen gaixotasun horiekin «dena da Franco», horren guztiaren errua Francok daukala. Nolabait Garzónen esajerazio hori gurera bilakatuz.

Zelangoa izan da erabili duzuen sorkuntza-prozesua ideia sortu zenetik?

Obra honek izugarrizko indarra dauka hasieratik, pentsatu genuenean zertaz hitz egingo genuen. Aurreko obra *Hamlet* izan zen, pixka bat langileriaren arazoak kontatzen genituen bertan. Horren aurretik

Errautsak eman genuen, eta hor belaunaldi baten ikuspuntua irudikatzen genuen, euskal rock radikalaren garaiko gazte batzuk zer bilakatu ziren. Orain, frankismoaren gaia eta ospitalea aipatu genuenean, halako sentsazio oso indartsua izan genuen. Nire intuizioak esaten zidan potentzial handiko obra genuela, eta uste dut hala dela. Beraz, sortze-prozesuan denok bizi izan dugun edo entzun izan dugun kontuekin lan egin dugu. Horregatik oso indartsua izan da. Oso konbentzituta geunden zer ari ginen kontatzen. Gero talde-lana bikaina izan da: Ximun Fuchsek zuzendaritza izugarri ondo eraman du, oso dramaturgia konplexua dauka obrak, pertsonaia asko agertzen dira; zazpi aktore gaude taula gainean, baina aktore bakoitzak zazpi edo zortzi pertsonaia ezberdin egiten ditu; baina oso ondo eraman dugu. *Errautsaken* bezala, obra hau Igor Elortzak eta Unai Iturriagak idatzi behar zutela ere argi geneukan, eta euren gaitasuna joan ginenean oso gogotsu hartu zuten proiektua. Talde-lan guztia nabarmenduko nuke, argiak, Paristik etorri den eta berarekin aurretik lan egin dugun Philippe Ducou, Asier Ituarteren musika... Denak eduki du halako indar berezi bat, eta taldean oso-oso ondo moldatu gara. Bestalde, gure sortze-prozesuak nahiko luzeak izaten dira, eta herri ezberdinetan egonaldiak betetzen ditugu. Luhuson egin ditugu bukaerako entseguak, baina baita ere Itsasun, Donibane Garazin, Azpeitian eta Oreretan. Horrek ere ikuspegi aberats bat ematen dio gure sorkuntzari dagokionez. Aktoreen lantaldea ere berriro dugu. Taldean sartu dira Pako Revueltas galdakaoztarra, Bilboko Patricia Urrutia, Arbizuko Zoila Berastegi eta Azpeitiko Erika Olaizola. Berriak dira, baina oso gogotsu dabilta. Baita ere Manex Fuchs baxenabartarra, Urko R. Pescador oreretarra eta ni neu, oso pozik gagoz. Hortik aparte, administrazioetik, ekoizpenetik eta banaketatik egin dugun lana ere interesgarria izan da; ederra delako ikustea hemendik eta maiatzera arte pila bat emanaldi ditugula. Gure ofiziorako oso kontu sana da. Publikoaren aldetik ere oso erantzun ona jasotzen gabilta, orain arteko saioak oso arrakastatsuak izan dira. Estreinaldian, jendea kanpoan gelditu zen, sartu ezinik.

Antzezlanetik aparte topaketak proposatu dituzue eskola-taldeakaz eta abarrakaz. Zertan datza?

Alde batetik, hau antzezlan bat da, baina badakigu gai honetaz sentsibiltate handia dagoela. Hala, pentsatu dugu egongo garen herri horietako elkarte ezberdinekin kontaktuan jartzea, eta elkarte horiekin batera zerbait gauzatzea, ahal den neurrian. Guk emanaldia egiten dugu, baina elkarte batek egin dezake, demagun, ibilbide bat bere herrian zehar, eta oraindik frankismoak dituen kale-izenez hitz egin, adibidez; edo bonbardatuak izan ziren herri horietara txango bat egin. Mediazioak deitzen ditugu. Elkar trukaketa egitea da herrietako elkarte horiekin. Hortaz aparte, zelan ez, institutuetaiko gazteekin egon gara, Gasteizen eta Luhuson, adibidez. Oreretan antzerki-eskolakoak egon dira gurekin. Gure esperientzia eta gure lana, ikuskizunetik harago, beste bide batzuetatik zabaltzea da kontua. Gure webgunean ikerketa izeneko atal bat zabaldu dugu eta bertan daude erabili ditugun materialak, jendeak ikus eta irakur ditzan; beharbada ezagutzen ez zituen gai batzuez informazioa jasotzeko. Ez gara ikuskizuneri bakarrik lotzen. ◀

Leioa Mendi Taldea, 25 urtean gorantza egiten



Bazkide gehiago lortzeko kanpaina ere egingo dute mendizaleek. © LEIOA MENDI TALDEA

Aldats gora eginez, 25 urtez gozatu dute Leioako mendizaleek daborduko. 1991ko azaroaren 24an egin zuten lehenengo txangoa gailurtxo batera: Abadiñoko Astxiki tontorra, 785 metrokoa. 25 urte eta ehunka tontor geroago, Leioa Mendi Taldearen familia zabalak urtemugako ekitaldiak hasiko ditu azaroaren 13an.

Leioako hainbat kirolzale batu ziren 1991ko azaroan, herriko mendizale denak batuko zituen talde bat sortzeko eta gazteei naturagaz harremanetan egoteko kirol-jarduera hori ezagutzeko aukera emateko. Handik denbora gutxira, azaroaren 24an, antolatu zuten lehenengo ekimena: Astxikiren konkista. Hala, bat egin zuten Atxarteko inguru naturalaren defentsan Euskal Herriko mendizaleek deitu zuten kontzentrazioagaz. Aste bat pasata, 1991ko abenduaren 2an, klubaren eraketa-batzarra egin zuten. Bertan, lehenengo zuzendaritza batzordea izendatu zuten: Diego Calvo, Mikel Martínez, Asier Goitia, Iñaki Rodríguez eta Agustín G. de Langarika.

Erregistroetan, ordea, hurrengo urtean onartu zuten Leioa Mendi Taldearen inskripzioa. Adibidez, Bizkaiko Mendizale Federazioak, Euskal Mendizale Federazioak eta Espainiako Mendi Federazioak 1992ko ekainean aintzat hartu zuten elkarteak.

Urteurreneko lehenengo ekimena
Gaur egungo 800 mendizale leioaztarrek datorren urtean, 2017an, egingo dituzte ospakizunen ekitaldi gehienak, baina aurten Astixiren txan-

go hura gogora ekarri eta omentzeko keinu txiki bat egingo dute, hurrengo ekimenen aurrekari gisa. Hala, azaroaren 13an, domekan, txango bat egingo dute «Euskal Herriko bazter ederretako batetik: Arrazolako bide berdea Atxondoko aranean», Leioako Mendi Taldeko kideek aurreratu dutenez. «Ibilbide biguna» izango da, esan dutenez.

Txangoaren ostean Elorrión bazkalduko dute, Guria jatetxean. Bertan, «kluba bizirik mantentzeko borrokatu» duen jendeari omenaldi txiki bat egingo zaie. Izan ere, ekimenaren helburua bikoitza da; alde batetik, «neba-arreben arteko elkarbizitzaz egun batez gozatzea, akorduan ditugun oroitzapenak partekatzen» eta, bes-

te aldetik, «garai desberdinetan klubeko jardueretan parte hartuz bere historia idatzi dugun taldekideok batzea». Irteera horretan parte-hartzeko izen-ematea zabalik dago daborduko. Bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek 53 euro.

Konpainia oneko paseoa

Ohi lege, autobusa Pinuetatik irtengo da, goizeko 07:50ean. Ondoren, mendizaleak batzen joango dira Lamia-kon, Luis Bilbao Libanoko autobus geroalekuan, Deustuko San Pedro plazan eta Bilboko Zabalburu plazan, Erztzain-etxearen ondoko autobus geroalekuan. Azken hitzordu hori 08:20an finkatu dute. Atxondoko aranera helduta, Apatamonasteriotik hasita ha-

mar kilometroko ibilbide erraza izango dute, mendatea igo eta irteerara bueltan heltzeko. Lau orduan beteko dute, geldialdiak kontuan hartuta, mendizaleek aurreikusi dutenez. Desnibela eta metatutako igoera 150 metrotakoak izango dira. Antolatzaileek gomendatu dute berotzeko arropa eta «konpainia onean paseoa emateko gogo handiz» joateko.

Talde zabala

Orain dela 25 urte, kuadrilla txiki bat izan zena, Bizkaiko mendi-elkarte garrantzitsu bat da gaur egun, 800 bat bazkidegaz. Hainbat ataletan batzen dira Leioa Mendi Taldeko kideak, berbarako: txangoak, eskalada eta bulderra, kide gazteen gustukoena. Halerere, gorabehera handiak izan dira klubean; orain dela bost urte elkarte bertan behera geratzeko arriskupean egon zen. «Inork ez zuen gura lanean ibili irabazteko asmorik gabeko elkarte batean» ekarri du akordura Teodoro Esteban klubeko diruzainak. Garai horretan, hutsune hori betetzeko ardura hartu zuen bera parte den taldeak, eta ez da damutu. Izan ere, urteurreneko egitaraua zehazten dabil tarte, tartean Portugalera bidaia bat. ◀

info+: Leioamt.com.

Mendizale aitzindariak

Leioa Mendi Taldea 1991ko azaroan sortu zen, baina mendizale-letasuna askoz lehenago jaio zen Uribe Kostako herri horretan. 1928an, Lexona'ko Mendigoizale Arrapatzenbazaitut taldea eratu zuten, antza, Leioa futbol-taldeko kideek; 1930etik aurrera ez dago horren berri gehiagorik. 1953an, Grupo

Alpino Lejona heldu zen, eta zortzi urtez jardun zuen. Azken urtean 165 bazkide izan zituen. Leioa Mendi Taldeko presidente den Santiago de Diegok elkarte haiek aldarrikatu ditu, eta argi dauka gaur egungo taldearen eragina izan dutela: «Grupo Alpino Lejonaren jarraitzaile historikoak sentitzen gara», azaldu du. ◀

Errotabarri berreskuratu dute

Plentziako Errotabarri futbol-zelaia estreinatu zuten pasa den zapatuan, ia urte biren ostean.

Amets gaiztoa zena ohikotasunera bueltatu da. Orain dela ia urte bi, bere 90. urteurrena zelan ozpindu zen iksui zuen Plentzia Kirol Elkartek, Errotabarri futbol-zelaiak zeuzkan egoera-baldintza arriskutsuak zirela-eta. Ez ziren gutxi izan klubaren jarraipena zalantzan ipini zutenak. Izan ere, jokalekuaren konponketak behin eta berriro atzeratu ziren; pasa den zapatuta arte, Errotabarriko futbol-zelaia berriro estreinatu baitzuten. Errotabarriko belar artifizialeko futbol-zelaia berritzeko lanen harrera-akta sinatu zuen Plentziako Udalak, pasa den egunean; «aurreikusitako azken data baino bost egun lehenago», Udalak azpimarratu duenez. Hala, itxita ge-

ratu zen 2014ko azaroan kirol-instalazio horren inguruan hasitako kapitulu beltza. Horren ostean, Bizkaiko Futbol Federazioaren Zelaiak Homologatzeko Batzordeko teknikariek zelaia bisitatu eta «argi berdea» eman zuten txapelketa ofizialeko partidak bertan jokatu ahal izateko. Plentzia Kirol Elkarteko ume-taldeak estreinatu zuen zapatuan belar artifizial berria. Ekaitz López bertoko jokalaria sartu zuen Errotabarri berrian lehenengo gol ofiziala. Domekan, oster, hainbat talde federatuk ere etxean jokatzeko aukera izan zuten. Errotabarriren eragina nabaritu zen eta bertan jokaturako partidak saldo positiboa utzi zuten. Denera, 300 bat jokari ibili dira denboraldi bitan erbestean jokatzeko eta entrenatzeko, inguruko klubaren babesari esker. Datozen asteetan bilera bat egingo du Udalak Plentziako klubagaz, Udalaren kirol-instalazioaren erabilera zehazteko eta zelaiaren inaugurazio ofizialerako ideiak eta datak batera adosteko. ◀



Gaur egungo konponbidea behin-behinekoa da, datozen hamar urteetarakoa. © PLENTZIAKO UDALA



Urdulizko futbol-taldea 13. postuan dago, Ohorezko Mailan, jaitsieratik hiru puntura.

Urdulizen entrenatzaile berria da Iker Casado

Osasun arazoak direla-eta, Nando Alonso Urduliz Futbol Taldeko entrenatzaileak bere ardura utzi egin behar izan dio. Iker Casadok hartu dio lekukoa, Ohorezko Mailan. Casadok ondo baino hobeto ezagutzen du kluba, bigarren entrenatzailea eta koordinatzailea da-eta. Gainera,

Adrián Golvanoren laguntza du. Tekniko berria pasa den aste-akabuan estreinatu zen taldearen arduran, etxean, Abantoren aurka jokaturako partidari. Ezin izan zion Alonsori garaipena eskaini, baina kakarraldoek puntu bat batu zuten Iparralde futbol-zelaiari, markagailuko o-o emaitzari esker. ◀

DACIA SANDERO

7.100€*-tik aurrera



1URTEZ ASEGURUA DOAN **5URTEKO** BERMEA

www.dacia.es / 915 065 359 | Ikus ezazu zure Renault-Dacia kontzesionarioan.

Izan zaitez ARGIA. Eros ezazu Dacia bat.

*PSPa Permisularako eta Baimenalarako da Dacia Sandero Base 1.2 55kW (75CV) autoparrosteko, zergak, deskontua eta Acción Reprise baimen. Irudiko modeloa: Dacia Sandero Laureate 1.2 55kW (75 ZP) 8.490 € zergak, deskontua eta Acción Reprise kontuan hartuta. Partikular eta autonomoentzat da aplikagarria Dacia Box bidez finantzabuz gero RCI Banque SA Sucursal en España-rekin. Gutzinezko epea: 24 hilabete. Finantzatu beharrezko gubernetik kopurua: 4.000 €. 600 €-ko frankiziadun arrisku protoko aseguruaren lehen urtean, MAPFRE-rekin. 5 urteko bermea Dacia gama guztiarentzat, lehen bi urteetan kilometro-mugarik gabe, eta hirugarren urtean bermea amaitu egingo da 100.000 km gaindituz gero. Hirugarren urteetik aurrera, Dacia Service-ren kontratuko berme-luzapena amaitu egingo da baldintza hauekiko bat betetzen denean: 2 urte gehigari edo guztira 80.000 km, bietan lehenengo gertatzen dena (ikus berme-luzapenaren kontratuen baldintzak). RICSAn eskaintako deskontua eta aseguru. Eskaintzak 2016/11/01etik 2016/11/30era arte iraungo du. Ez da bateragarria beste finantza-ekintza batzuekin.

Dacia Sandero gama: kontsumo mistoa (l/100km) 3,5 eta 5,8 bitartean. CO₂-aren isuria (g/km) 90 eta 130 bitartean.

Dacia gomendatzen du **CEAT**

BILBO BERRI Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. DEUSTU www.bilboberri.com

LEIOA BERRI Iparragirre Hiribidea, 94. Tel. 94 480 42 90. LEIOA www.renault.es/concesion/leioaberri



Galtza motzetan

ANA
RAMOS SARRIUGARTE
Kazetaria

Gazteak indarrez datoz-eta, zabal diezaiegun atea

Haize freskoa iritsi da herri-kiroletara. Gazteak pausoa egoki emanda sartzen ari dira horren gureak diren jardueratan, pilotan eta aizkoran, kasu. Aldaketa hor da, eta begi-bistakoa da, gainera.

Euskal Herriko Aizkolari Txapelketak adibide polita utzi du orain gutxi. Urriaren 22an Bizkaia pilotalekuan jokatu zen final handian elkarren kontra aritu ziren sei aizkolarietatik bakarrak dauka 40 urte baino gehiago. Haietatik lau, ordea, ez dira 30era iristen. Aitzol Atutxa irabazleak, esaterako, 28 urte ditu, eta Iker Vicentek 19 baino ez. Gazteak ate joka datoz, eta herri-kirolek eskuak zabalik hartu dute bizigarria, besteak beste, jarraitzaile gazteagoak plazara erakartzeko modua baita. Enborrak adar berriak behar dituen antzera, enbor horiek ebakitzen dituztenek ere lekukoa eman behar diete atzetik datozenei.

Pilotan ere garbi antzematen da belaunaldi aldaketa bertan dela. Juan Martinez de Irujoren osasun-arazoak alde batera utzita, eta Aimar Olaizolak, Abel Barriolak eta Oinatz Bengoetxeak oraindik emateko asko badute ere, Iker Irribarria, Iñaki Artola eta Jokin Altuna gazteak ez dauke aukera alperrik galtzeko, Mikel Urrutikoetxearen baimenarekin, beti ere. Etorkizuna oraina da frontoietan. Orain gutxira arte punta-puntan aritu diren hainbat pilotarik erretiroa hartu dute, Pablo Berasaluzek kasu, eta gazteagoi lekukoa eman diete.

Berritzea ez dator batere gaizki. Hobe esanda, beharrezkoa da kirolak biziraun dezan. Plazak eta frontoiak beste ukitu bat hartzen ari dira. Kanpoan ere nabaritzen da. Sare sozialetan sartu eta gainbegiratu azkar bat ematea besterik ez dago. Guztia uztar daiteke. Arrakasta handiz, gainera. Gure kirolen etorkizuna bermatzeko modua da. ◀



Sei metrotik gorako olatuak iragarri arte ez dute Punta Galea Challenge egingo. © WSL

Olatua, Galeara

Greg Long Galeara etorriko da bertoko olatu handietan surf egitera. Natxo González izango du bertoko aurkari.

Munduko Zirkuituaren egoitza izango da Galeako Olatu Handia, beste behin ere, antolatzaileek gogorazazi dutenez. Iaz, lehenengo aldiz, lehiaketa bertan behera utzi zuten, horretarako baldintza egokirik sortu ez zelako; baina, halere, surfeko muturreko modalitate horretako munduko proben egutegi zorrotzean finkaturik dago, aurtengo QS Sailkatze-serie azpikategoria berrian. Egun egokia aukeratzeko itxaronaldia otsailaren 28ra arte luzatuko da; olatuek izan arte 6-7 metroko altuera, gutxienez. Horrenbestez, Getxon egongo da olatu handietako munduko surf-elitea. Horien artean,

honako hauek nabarmenduko dira: Greg Long (AEB) munduko txapelduna eta Grant Twiggy Baker hegoafrikarra, 2013ko txapelketan Galeako garailea izan zena eta gaur egungo zirkuituko liderra dena. Horiekaz batera jardungo dute zazpi euskal herritar surflarik: Jon Garai eta Aritz Saratxaga getxotarrak, Natxo González plentziarrak, David Bustamante Zuku sopeloztarrak, Adrián Fernández de Valderrama bakiotarrak eta Axi Muniain (lehenengo edizioaren irabazlea) eta Indar Unanue gipuzkoarrek. WSL Surfeko Munduko Ligak antolatutako proba honetan, laguntzaile dira 3*Sesenta* aldizkaria, Getxo Surf Taldea eta Getxo Kirolak. ◀

Virginia Díaz nagusi Bostongo estropadan

Virginia Díazek aulki mugikorren munduko estropada ospetsuenetako bat irabazi zuen pasa den urriaren 23an, bere unibertsitateko taldeagaz. Areetako Raspas arraun-elkarteko arraunlariak 4+ modalitatean parte hartu zuen (lau arraunlari eta lemazain bat) AEBetako Boston hiriko *Head of the Charles Regatta* izeneko estropadaren 52. edizioan. Finalean, Carleton eta New Hampshire unibertsitateetako ontzien aurretik helmugaratu zen bere taldea. Raspaseko arraunlaria oso pozik dago bere prestakuntza fisikoagaz; sasoiaren egoteko taldeko eta banakako entrenamenduak tartekatzen ditu. ◀

Autobusa ipini dute Behobia-Donostiara

Astrabudua Taldeak autobusa antolatu du, datorren domekan, hilak 13, Behobia-Donostia lasterketan korrika egin edo lagunduko dutenak irteerara hurreratzeko. Garraioa 07:00etan irtengo da Astrabudutik, 09:00ak aldera Behobiara heltzeko. Bertan, korrikalariak utziko dituzte. Autobusa 09:30ean, Behobiatik Donostiara aterako da; erdigunean utziko ditu laguntzaileak. Probaren ostean, 15:30ean, bazkaria izango dute Donostiako Alderdi Zaharrean. Irteera 17:30ean izango da Astrabuduarantz. Leku-kopurua mugatua da.

izen-ematea: astrabudualdea@gmail.com

Badmintoneko taldea sortu dute Getxon

Badminton kirolak protagonismo txiki bat lortu du egunotan, Badmintoneko Munduko Gazte Txapelketa Bilboko Miribilla kiroldegian jokatzen dabiltza-eta, hilaren 13ra arte. Bertan, 64 herrialdeetako 600 jokalaririk ari dira lehiatzen. Gainera, Uribe Kostara heldu da daborduko: erraketa-kirol hori bultzatzeko asmoz, Badminton Getxo taldea sortu zuen pasa den abuztu-irailaren bueltan, eta Algortako Fadurako kiroldegian egoitza hartu du. Orain dela urte bi, Euskadiko Badminton Federakuntzak Enrique Bernardos kantabriarri proposatu zion kirol hori Bizkaian

sustatzeko proiektua aurrera erotea. Bere berbetan, «ideia asko» gustatu zitzaion, «zortzi urte daramatzat kirol honetan murgilduta». Ondorioz, talde bat sortu zuen Bilbon orain dela urte bi, eta aurtun, talde horren bultzadaz, beste bat jaio da Algortan, Bernardosen eta Carolina Marínen babesean. Carolina Marín egungo txapeldun olimpikoa da, eta bere ospeari esker badmintonak gorakada izugarria izan du azken urteotan. Klubak 30 bat bazkide ditu eta Fadurako bigarren pilotalekuan entrenatzen dute, astelehenetan eta eguaztenetan, arrastian. ◀

info+: getxobad@gmail.com

© INNPALA

Iker Gordon, profesionaletan

Iker Gordon pilotari sopeloztarra palari profesional moduan estreinatu zen bere herriko frontoian, pasa den zapatuan. Atzelariak ezin izan ziren garaipena oparitu etxekoei, baina zapora ona utzi zuen pilotalekuan. Ez zen partida erraza Gordontzat, Pablo Fustogaz batera aurkari izan zituelako Esteban Gaubeka armintzarra eta Ibai Pérez. ◀

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



Azaroaren 15a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

SARIA

Francoren bilobari gutuna

antzezlanerako 4 sarrera bikoitz dauzkagu.

Gura dituzu?

Azaroaren 18an eskainiko dute Kultur Leioan, anima zaitzez!

Zorion agurrak

5€

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
944 911 337



BIKI
GETXO
EHUko kideen partez

Zorionak, Biki! Oso ondo pasa aste hau zure urtebetetzea ospatzen. Egunak poztan dituzu poxpolin, segi beti horren alai! Muxu potoloa!



ALI
ALGORTA
Inguruko partez

Milaka musu inguruan gaituzun guztiongandik eta baita zure kide Pelusorengandik ere. Pastelak eta zukuren bat presta itzazu eta ospatuko dugu!



MIKELTXU
ALGORTA
Kuadrillaren partez

Urteak bete aurretik jaso duzu oparirik ederrena; adurra darizula zabilza Maialen alaba jaioberriagaz. Zorionak, Mikeltxu! Urtebetetze-egun ederra opa dizugu! Muxu handi-handiak!

Sudokua

	4							5
		6	5			7		
3			9		6			2
	9		7					6
	8							
				9	3	4		
7					4		1	3
5							8	
						2		

Gogoan hartu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

Soluzioa

9	7	2	6	5	1	4	3	8
4	8	6	7	3	9	2	1	5
3	1	5	4	8	2	6	9	7
7	2	4	3	6	8	1	5	9
6	5	3	1	9	4	7	8	2
8	9	1	5	2	7	3	6	4
2	4	8	9	1	6	5	7	3
1	3	7	8	4	5	9	2	6
5	6	9	2	7	3	8	4	1

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Proposamen berezi bat egingo dizute; ez lotu zeruari begira, halako aukerak ez dituzu-eta sarri izango. Aukera denak balia egizuz!




Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Ipini hitzordua, behingoz! Ez itxaron gehiago! Beragaz egoteko gogotsu zaude aspalditik, eta ondo dakizu egun doko topaketa izango dela.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Egunotan makal sentitzen bazara ere, lasai! Sasoi berriari egokitzeko denbora behar izan duzu, baina laster egongo zara sasoi bete-betean.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Ezazu gorde zuretzat bakarrik berri on hori! Kontatzen badiezu, lagunak ere poz handia hartuko dute, eta elkarrengatik ospatzeko aukera izango duzue.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Saltsa denetako buruntzalia izatea gogoko duzu, baina... besteek ere merezi dute protagonista izatea! Bilatu oreka!



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Umorea zure alde erabiltzen ikasi beharko zenuke; hainbat egoerari aurre egiteko sendagai aproposa dateke; eta hain ondo geratzen zaizu irribarrean!



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Beharrez lepo zabilta; Eguzki amandareen sasoi gogoan, gainera! Lasai, laster izango dituzu opor-egun batzuk, hasi bidaia prestatzen...



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Oraindino lar goiz da Olentzero edo Mari Domingiri gutuna idazteko, *Lastoa!* Hala ere, zer opari gura duzun pentsatzen has zaitzek...



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Aste-akabuan ez duzula ligatzerik lortu? Lasai, hurrengo zapatuan berriro ahalegindu, zortea zure alde izango duzu-eta. Baina, izan zaitzez ausarta!



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Beti txoritan egoten zara. Zer darabilzu buruan? Egiozu kasu alboan duzun horri, proposamen onak izango ditu eta zugaz egoteko irrikan dago.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Ezin da beti norberak gura duena egin; batzuetan, amore eman eta besteek esaten dutena entzun behar izango zenuke.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Plastikozko aterki garden horrek argitasunari bidea ematen dio, neguan ere bai... Zure irribarre eder hori ikusiz gero, are gehiago argituko zaigu eguna!



Antropozenoa

Garai geologiko berri batean bizi gara?

Alejandro Cearreta Bilbao EHuko ikertzaileak eta nazioarteko beste 37 adituk uste dute murgilduta gaudela garai geologiko berri batean: Antropozenoan. Horren ebidentzia argia aurkitu dute Getxon, Tunelboka hondartzan.

TESTUA: IKER RINCON MORENO / ARGAZKIAK: HODEI TORRES

Ofizialki, Holozenoan bizi gara. Orain dela 11.700 urte hasitako garaia izena da hori; klima guztiz aldatu eta azkenengo glaziazio faseari amaiera eman zitzaionetik, hain zuzen ere. Une hartan, tenperatura leundu eta hainbat glaziar fusionatu egin ziren, itsasoaren maila igoaraziz. Ordutik, gizakiak nekazaritza eta zibilizazioa garatu ditu, gaur egun bizi dugun globalizaziora heldu arte. Tarte horretan, ingurumenean eragindako aldaketak nabarmenak izan dira, batez ere industrializazio-garaitik aurrera. Hori dela-eta, hainbat zientzialarik Holozenoari amaiera eman, eta Antropozenoan gaudela uste dute. Ideia hori kimikako Nobel saridun Paul Crutzen-ek proposatu zuen 2000. urtean. Horren arabera, azken mendeotan Lurraren ingurumenean pertsonok izandako eragina nabarmena da, eta horrek garai geologiko berri bati hasiera eman dio. Proposamen hori apurka-apurka indartzen joan da azken bolada honetan, eta arlo ezberdinetako lan zientifiko nahikotxo tesia hori babesten dute. Hala ere, ofiziala izateko, Estratigrafiako Nazioarteko Batzordeak bere oniritzia eman behar dio; hori lortzeko lanean dabil Antropozenoaren inguruko lantaldea (*Anthropocene Working Group of the Subcommission on Quaternary*). Nazioarteko 38 geo-zientzialarik osatzen dute lantalde hori; espainiar estatuko zientzialari bakarrak parte har-

tzen du horretan: Alejandro Cearreta Bilbaok, Plentzian bizi den EHuko irakasle eta ikertzaileak. Cearretak azaldu duenez, 2009an osatu zuten lantalde hori; ordutik, garai geologiko berri horren informazioa eta ebidentziak batzen jardun dute, mundu osoan. Zazpi urte eman dituzte zeregin horretan, eta lortutako emaitzak joan den abuztuan egindako XXXV. Geolo-

Antropozenoa 1950eko hamarkadaren erdialdean hasten dela ondorioztatu du nazioarteko aditu-talde batek

giako Nazioarteko Bilkuran aurkeztu zituzten. Bertan, besteak beste, hurrengo hiru urteetarako helburua agindu zioten taldeari: Antropozenoaren ezaugarriak argi eta garbi definitzen dituzten lekuak aurkitzea.

Zer da Antropozenoa?

Antropozenoa garai geologiko berri baten proposamena da. Horren arabera, geologiaren eraldaketaren oinarritzko elementu bihurtu da pertsona, lurzoru moldatzeko gai dena. Antropozenoa pertsonaren geologia dela esan daiteke, hau da, pertsonon az-

tarna erakusten duen geologia. Jatorrizko ideia arabera, Industria Iraultzagaz batera hasi zen Antropozenoa, lurrun-makina asmatu zenean, XVIII. mendearen akabuan. Beste aditu batzuen arabera, ordea, horren hasiera Neolitikoan kokatzeko beharra dago, nekazaritzaren loraldiagaz; une hartan natura gure beharretara egokitzen hasi ginelako. Hala ere, Antropozenoaren hasiera XX. mendeko erdialdean kokatzearen alde dago Cearretaren lantaldea; 1950eko hamarkadan, Bigarren Mundu Gerraren ostean, «gizakiaren geologia globala eta sinkronikoa une horretan ematen hasten delako».

Adituaren arabera, prozesu horiek guztiak munduko edozein lekutan ikus daitezke gaur egun, denak momentu berean. «1950etik aurrera sortzen ditugun objektuak zein materialak eta egiten diren prozesu guztiak guztiz globalak dira, eta hori beharrezko baldintza da garai geologiko gisa onartzeko», azaldu du Cearretak. Horrenbestez, Plentzian bizi den ikertzaileak aitortu duenez, beste hipotesi biak garai kulturaltzat onar daitezkeen arren, ezin dira geologikoki onartu. Neolitikoaren kasuan, hasierako eragin-guneak Asian eta Afrikan eman ziren, gerora gainontzeko puntu guztietara hedatu ziren, milaka urteko aldeagaz; «hortaz, ez da fenomeno sinkronikoa». Industria Iraultzari dagokionez, Britainia Handian hasi zen, eta mende batzuk igaro ostean hedatu zen munduko beste leku guztietara, Txinara edo Indiara, barbarako. «Hala, nahiz eta denbora aldea txikiagoa izan, ez da globala izan».

Pertsonaren eragin globala eta sinkronikoa 1950eko hamarkadaz geroztik bakarrik gertatzen dela ondorioztatu du nazioarteko adituen lantaldeak. Horren adierazle nagusiak dira atmosferan eginda-



Ezkerrean, Alejandro Cearreta Bilbao, pertsonak sortutako materialez osatutako arrokez inguratuta. Goian, Tunelboka hondartza zementatuta. Eskuman, Eskoziako Labe Garaietan erabilitako adreiluez eta bestelako materialez osatutako sedimentuak; horiek estaltzen dute Tunelbokako jatorrizko *flysch*a.



ko leherketa atomikoen ondorioz hedatutako isotopo erradioaktiboak. Lehenengoa 1945eko uztailaren 15ean izan zen, Alamogordon (Mexiko Berria, AEB). Ondoren eraso nuklear bi egin zituzten, Japoniako Hiroshima eta Nagasaki herrietan, Bigarren Mundu Gerraren barruan. Horren ostean, 1980ko hamarkadara bitartean, 500 leherketa atomiko baino gehiago egon dira mundu osoan. Horien eraginez, atmosfera askatu ziren hainbat motatako isotopo erradioaktiboak, barbarako: Cesio 137 eta Plutonio 239. Horiek mundu osora hedatu dira, atmosferako korronteez garraiatuta, eta lurzoruan txertatu dira euriaren bidez. Horren guztiaren ondorioz, munduko edozein lekutan lurzoruaren lagin bat hartuz gero, isotopo erradioaktibo horiek topatuko ditugu. «Horiek 1952tik dira atzemangarriak, urte horretatik aurrera kontzentrazio nahikoa zegoelako isotopo erradioaktiboak detektatzeko. Kontzentrazio handiena, berriz, 1963an jaso daiteke, leherketa gehien eman ziren urtea izan baitzen». Klimaren aldaketa ere Antropozenoaren parte dela ere aitortzen du Cearretak: «esan genezake, Antropozenoa marko kontzeptual bat dela, eta horretan sar ditzakegu aldaketa klimatikoa, espezieen desagertzea, ekosistemen suntsipena eta ozeanoen azidotzea, besteak beste».

Ebidentziak, Uribe Kostan

Geologikoki Uribe Kosta eskualdea oso interesgarria da; gainera, Geologia Interesdun Leku (GIL) gehien batzen dituen hirugarren gunea da EAE osoan. Leku horietan garai geologiko asko ikus daitezkeela gogorarazten digu EHUKo ikertzaileak. Kuaternarioaren barruan, barbarako, Antropozenoko materialen erregistro «oso interesgarria» duten gunek bi ditugu: Go-

rrondatxe eta Tunelboka, biak Getxo udalerrian daude. Horiek biak material artifizialez osatutako biltegi naturalak dira. Material hori guztia Bizkaiko industria-jardueratik dator; Labe Garaietatik, gehienbat. XX. mendean itsasoan botatutako zepak dira hondartza bi horietan pilatutakoak, Cearretak azaltzen duenaren arabera. «30 milioi tona baino gehiago isuri zituzten itsasora, guztira; horietatik, milioi bat inguru gure kostaldean lehorreratu ziren», zehaztu du adituak. Hala, zarama hori gutxika-gutxika pilatzen hasi zen Gorrondatxe eta Tunelboka, zementatutako hondartzak bihurtuz. Tunelbokako zementazioa nabariagoa da Gorrondatxekoa baino. «Bertako hondarra arroka bihurtu da. Legar tamainako materialak daude eta zepak pisu handikoak dira; oster,

Zepaz, adreiluz, plastikoz eta bestelako materialez osatu dira Tunelboka pilatuta aurki daitezkeen arroak

Gorrondatxen pilatutakoak harea-tamainakoak dira, gehienbat». Hori dela-eta, Tunelbokako sekuentzia osoagoa dela dio Cearretak, «ikusgarriagoa».

Hondartza horretara bajatuz gero, ingurura begiratzea besterik ez dago bertako paisaia «naturala» ez dela jakiteko. XX. mendean pilatutako sedimentuek ez diote milaka milioi urtetan osatutako sekuentziari jarraitzen. *Flysch*aren gainean zementatutako sedimentuak ikus daitezke, kolore ilunekoak, adreiluz, zepaz eta bestelako askotariko materialez osatutako sedimentuak. Inguru honetako ehun urteko historia

kontatzeko gai dira horiek, pertsonak inguruan eragindako «kontakizunez» josita daude.

Gutxi gorabehera azkenengo ehun urteetan eratutako kapa horiei «egundokoak» deritze Cearretak. Geologian erabili ohi den denbora-unitatea milioi bat urtekoa da, tarte hori baita sedimentuek harri bihurtzeko behar duten denbora. Ostera, pertsonok hori ere moldatu dugula oharrarazten digu Cearretak. «Askotariko materialak eratu ditugu, eta prozesu naturalei esker, horiek litifikazio-prozesua abia-dura handiz egiten dute. Hamarkadak baino ez dira behar izan Tunelbokako arroka horiek osatzeko, eta erregistro geologikokoaren parte bihurtu dira dabor-duko», azaldu du. Gainera, barbarako Tunelboka, pilatutako sedimentu artifizial horiek hamar metroko altuera daukate hainbat puntutan.

Mundu osoko erreferentearen bila

Antropozenoaren ebidentziatzat aurkeztu zuen Tunelbokako kasua Cearretak Oslon, pasa den apirilean; jendea «txundituta» gelditu zela dio, «gizakia- ren eragina argi eta garbi» ikus daitekeelako eremu horretan. Hala ere, ikertzaileak aitortzen du Getxo-ko hondartza hori ezin dela garai geologiko horren ezaugarriak erakutsiko dituen oinarritzko gunea izan (GSSP); hondartza higitzen joango delako, itsas-maila handitzen doan heinean. «Ezinezkoa izango da eremu hori milaka urtean mantentzea, eta horixe da erreferente batek behar duena», azaltzen du EHUKo ikertzaileak. Nahiz eta GSSP aitortza ez jaso, Tunelbokako kasuak nazioartean oihartzun handia izango duela argi dauka Cearretak: «bisitatzeko erraza da, oso ikusgarria da, argia da eta Antropozenoaren narratiba oso ondo laburbiltzen du». ◀



Mundukatuak

Jone Ugarteburu Jauregi itzubaltzetarra

«Gazteak borrokan dira gaeleraz bizitzearen alde»

Jone Ugarteburu itzubaltzetarrak masterra Euskal Herritik kanpo egin gura zuen iaz, «beste ingurune batzuk ezagutzeko». Aitortu duenez, «beti gustatu izan zaizkit irlandar paisaiak. Gainera, duela urte bi Cloverwind musika-taldeagaz etorri nintzen, aste pare batez, musika jotzera, eta hainbat lagun egin genituen. Bertako natura eta ekologia gehiago ezagutzeaz gainera, irlandar musika eta kultura barru-barrutik ezagutzeko aukera paregabea izan nuen». Hala, iazko irailan kontserbazio eta ingurumenaren kudeaketaren gaineko masterra irlako unibertsitate-zentroetan bilatu eta Belfastko Erreginari Unibertsitatean topatu zuen. Gainera, «Irlandako lagun pare batek ere hona bizitzera zetozela esan zidaten eta bertoko lagunak izatea beti lagungarria izaten da atzerrian». Udan, baina, ikasketak amaitu «eta master amaierako tesia egiten

nenbilen laborategi berean lanean hasi nintzen, antzeko proiektu batean, gustura». Belfastera heldu zenean, «zegoen usainak harritu ninduen: kaleak janari lasterra saltzen duten sal-tokiz beterik daude», dio Ugarteburuk.

“ Bitxia egin zitzaidan edate-kontuetan sexuaren araberrako ezberdintasuna ”

Supermerkatuetan ere, «sartu bezain laster lehenengo ikusten dena gozokiak eta txokolatinak dira», berretsi du. Edateko, oster, garagardo pintak gurago dituzte bertan. Halere, «bitxia iruditu zitzaidan sexuaren araberrako ezberdintasun nabaria egotea. Gizonek pintak edaten dituzte eta, batzuetan, pinta erdia eskatzen badute (gure

kañaren baliokidea) ahultzat hartzen dituzte. Era berean, neskek sagardoa edaten dute askotan, eta inguru batzuetan arraroa iruditzen zaie neska batek hainbat pinta edatea», azaldu du biologoak. Hala eta guztiz ere, egunero egoten da gaueko martxa eta tabernetan musika zuzenean izaten dute, normalean. Ugartebururi «komunitate-sentimendua nabariagoa» egin zaio Belfasteko mendebaldean, «gatazken ondoren asko galdu den arren».

Gaeleraz berba egiten duen komunitatea «bizirik» topatu du: «hainbat gazte daude irlanderraz bizitzeko eskubideen alde borrokan. Udan zehar adibidez, lokal bat lortu zuten bertan, *suiteoireacht* bat (gaztetxea) sortzeko. Horrez gainera, Liú Lúnnasa jaialdia antolatu zuten, musika modernoa irlanderraz egiten duten taldeak sustatzeko eta gazte gaeleradunentzat jai-giro gaeleragoa eskaintzeko». ◀

NOR DA

Nongoa

Itzubaltzeta/Romokoa.

Adina

26 urte.

Zertan dabil

Master bat ikasten eta lanean aldi berean.

Ikasketak

Biologian lizentziaduna.

Noiz arte Irlandan?

Momentuz, Gabonetara arte, Belfasten geratzeko asmoa dauka. Lana amaitu ondoren, hilabete batzuetarako itzuliko da seguruenik, baina oraindino ez dauka argi zer egingo duen.

NON DAGO



Lurraldea

Ipar Irlanda edo Sei Konderriak.

Azalera

13.843 km2 (Bizkaia beste sei aldiz pasatxo).

Hiria

Belfast (ingelesez), Béal Feirste (irlanderaz), edo Bilfawst zein Bilfaust (Ulsterko eskozieraz).

Biztanleria

333.000.


Hizkuntzak

Ingelesa da hizkuntza hegemonikoa. Halere, Ipar Irlandako Kultura, Arte eta Aisialdi Sailaren arabera, irlanderrak 175.000 bat hiztun ei ditu Sei Konderrietan, eta Ulsterko eskozierak 35.000 bat. 1998tik aurrera, Ostiral Santuko Akordioaren ondoren, Ipar Irlandako hizkuntza gutxituak onartu zituzten, ofizialki biak.

Dirua

Libera esterlina, bertako bankuek jaulkia.

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua